

URKABUSTAIZKO IRLA HARIZTIAK (ES2110003)
KONTSERBAZIO BEREZIKO EREMURAKO (KBE)
HELBURUEN ETA ERREGULAZIOEN
DOKUMENTUA



Zirriborroa (2014ko uztaila)

Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko
Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza



**URKABUSTAIZKO IRLA HARIZTIAK (ES2110003) KONTSERBAZIO
BEREZIKO EREMURAKO (KBE) HELBURUEN ETA ERREGULAZIOEN
DOKUMENTUA
ZIRRIBORROA (2014KO UZTAILA).**

AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	1
2. INFORMAZIO OROKORRA.....	5
2.1 Identifikazioa eta mugaketa.....	5
2.2 Jabetza-erregimena.....	6
2.3 Natura 2000 Sareko beste leku batzuekiko lotura.....	6
2.4 Kontserbazioaren legezko estatusa eta kudeaketako eta plangintzako tresnak.....	8
3. HABITAT NATURALAK ETA ERDINATURALAK.....	11
4. FLORA.....	13
5. FAUNA.....	15
6. BABES BEREZIKO ERREGIMENEAN DAUDEN HABITAT NATURALAK ETA ESPEZIEAK.....	27
7. BABES BEREZIKO ERREGIMENEAN DAUDEN HABITAT NATURELEI, ETA FLORARI ETA FAUNARI BURUZKO ARAUDIAK.....	31
8. “URKABUSTAIZKO IRLA HARIZTIAK” KBE-RAKO PREBENTZIO ERREGIMENA.....	33

8.1	Prebentzio-erregimen orokorra	33
8.2	Nekazaritza- eta abeltzaintza-erabilerarako prebentzio-erregimena	34
8.3	Ehizarako eta arrantzarako prebentzio-erregimena	34
8.4	Ura erabiltzeko prebentzio-erregimena	35
8.5	Hirigintza-erregimenerako, hirigintza-erabileretarako eta eraikuntzarako prebentzio-erregimena.....	35
8.6	Azpiegituretarako, ekipamendu handietarako eta erauzpen-jardueretarako prebentzio-erregimena.....	35
8.7	Bestelako erabilera eta jardueretarako prebentzio-erregimena.....	36
9.	FUNTSEZKOAK EDO KUDEAKETAREN HELBURU DIREN ELEMENTUAK.....	37
9.1	Habitatak	38
9.2	Espezieak	39
10.	FUNTSEZKO ELEMENTUETARAKO EDO KUDEAKETAREN XEDE DIRENETARAKO HELBURUAK ETA ERREGULAZIOAK.....	41
10.1	Basoak	43
10.2	Baso-igel jauzkaria (<i>Rana dalmatina</i>)	54
10.3	Kiropteroak	56
10.4	Konektagarritasuna eta irla-basoen beste prozesu ekologiko batzuk	60
11.	KUDEAKETAN LAGUNTZEKO TRESNAK	63
11.1	Biodibertsitateari buruzko informazioa eta ezagutzak	63
11.2	Herritarrei zuzendutako komunikazioa, hezkuntza partaidetza, eta kontzientziazioa	66
11.3	Gobernantza.....	68
12.	BIBLIOGRAFIA	70

13. JARRAIPEN ADIERAZLEAK.....73

1. SARRERA

Lurzoru hidromorfo gaineko haritz kanduduneko (*Quercus robur*) eta ametz arrunteko (*Q. pyrenaica*) harizti atlantikoez batik bat osatzen diren hiru unadek eratzen dute “Urkabustaizko irla-hariztiak” Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE).

Euskal Autonomia Erkidegoan harizti horien balizko eremuak 3.130 km² inguru hartuko lituzkeen arren, gaur egun azalera horren % 5 soilik hartzen dute haritz kanduduna nagusi duten basoek, eta azalera horren % 60 inguru hartzen dute espezie exotikoek, batik bat intsinis pinuak (*Pinus radiata*) (IKT 2000, Maldonado, Martínez de Arano eta Latorre 2006).

Harizti atlantikoek jasan dituzten presio antropikoek –hots, landatzeek, mozketa selektiboek, baso-soilketek, suteek, bioma-bilketak eta azienda sartzeak– finkatu dute, hein handi batean bederen, baso horien osaera, egitura eta dinamika. Nolanahi ere, azken bi hamarkadetan landa-bizitza arian-arian bertan behera geratzeak prozesu naturalak berriro nagusitzea eragin du. Basoaren leheneratze-prozesu hori positibotzat jo badaiteke ere, prozesu horrek zenbait arazo dakar, eta hauek dira garrantzizkoenak:

- Lizarra edo astigarra gisako espezieak haritzak baino arrakasta handiagoa dute ezartzeko eta hazteko garaian.
- Pagoak, itxuraz, lehia abantaila du haritzarekiko.
- Haritza ez da birsortzen.
- Egitura-elementu urria du, hala nola zutik dauden zuhaitz hilak edo egurra basoaren oinean.

Ondoren, KBEa osatzen duten hiru sektoreen ezaugarriak deskribatuko dira:

- DEHESAKO SEKTOREA (1. sektorea); Oiardo herriaren (Urkabustaizko udalerrian) hego-mendebaldean kokatzen da, eta haritz kandudunetz (*Quercus robur*) eta ametzez (*Quercus pyrenaica*) osatutako baso bat da. 9,2 ha-ko azalera du. Segabelardi atlantikoez inguratuta dago, eta ez du beste edonolako zuhaitzirekin kontakturik.
- GARAIKO SEKTOREA (2. sektorea); Oiardo herriaren (Urkabustaizko udalerrian) hego-ekialdean kokatzen den 2,6 ha-ko unada bat da, eta haritz kanduduna eta erkameztia (*Quercus faginea*) nagusi diren harizti bat da. Dehesako sektorearen kasuan bezalaxe, harizti hori beste baso batzuetatik bakartuta dago, segabelardi atlantikoez inguratuta.
- GODAMO MENDIKO ETA ZUIAKO HARANEKO SEKTOREA (3. sektorea); 265 ha-ko azalera duenez gero, hiru sektoreen artean handiena da, eta Izarra, Abornikano

(Urkabustaizko udalerrria) eta Lukiano (Zuiako udalerrria) herrien artean kokatzen da. Sektorea nagusiki *Quercus robur* harizti mesotrofo azpiatlantikoez, pagadi azidofiloez eta ameztiez osatuta dago.

AP-68 autobideak zeharkatzen du sektorea, eta bi zatitan banatzen du.

KBEan hainbat habitat eta espezie deskribatu dira: *Habitat naturalen eta basafloa eta basafaunaren kontserbazioari buruzko maiatzaren 21eko Kontseiluaren 92/43/EEE Direktibaren* (aurrerantzean Habitategi buruzko Direktiba) I. eta II. eranskinetan deskribatu diren habitat eta espezie batzuk; *Basahegaztien kontserbazioari buruzko 2009ko azaroaren 30eko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009/147/EE Direktibaren* (aurrerantzean Hegaztiegia buruzko Direktiba) I. eranskinean barnean hartzen diren espezie batzuk; edo autonomia-erkidegoetako edo eskualdeetako zerrenda gorrietan agertzen diren espezie batzuk. Hori dela eta, 2003an Batasunaren Intereseko Leku gisa (BIL) barnean hartu zen Europako Natura 2000 Sare ekologikoan.

Gainera, KBEa osatzen duten hiru sektoreetan ordezkatuta daude Euskal Autonomia Erkidegoaren testuinguruan berezkoak diren haran-hondoko eta lautadako basoak, hots, historikoki larreekin, labore-lurrekin eta hiriguneekin ordeztu direnak. Ildo horretan, espazio horrek garrantzi ekologiko eta paisajistiko handia du. Izan ere, dibertsitate paisajistikoan laguntzen du; eremu irekietan elikatzen diren eta atsedean hartzeko, ugaltzeko edo babesteko basoguneak behar dituzten animalia-espezieentzako babeslekua da; eta landare-propaguluaren gordailua eta gene-gordailua da.

Dokumentu honen bidez bete egiten dira Habitategi buruzko Direktibak (92/43/EEE) ezarritako betebeharrak. Direktibaren 4. artikulua ezartzen duenez, Batasunaren Intereseko Lekuak (BIL) Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatu behar dira, eta, horretarako, Direktiba horren I. eta II. eranskinetako habitat natural eta espezie moten eskakizun ekologikoei erantzun dieten beharrezko kontserbazio-neurriak finkatuko dira.

“Urkabustaizko irla-hariztiak” KBEaren ingurumen-kudeaketan eragina izan dezaketen edo hura zehatz dezaketen baldintzatzaile naturalen, kulturalen, sozialen eta ekonomikoen analisia biltzen du dokumentuak. Espazioan agertzen diren balio naturalen analisia abiapuntu izanik, hautatu dira lekua kudeatzeko giltzarritzat jotzen diren elementuak. Elementu horiek, hain zuzen, izango dira kontserbazio-helburuetako eta -erregulazioetako proposamenen funtsezko oinarria. Horretarako, kontserbazio-betebeharren eta garapen sozioekonomikoaren arteko oreka bilatuko da, eta gaur egun dauden jardura ekonomikoak hartuko dira kontuan –aplikatzekoa den araudiak ezarritako babes-mugaren barruan–, baita gaur egun dauden populazioen kokatze-arazoak ere.

Horrekin guztiarekin, funtsezkoak edo kudeaketaren helburu diren elementuen kontserbazio-egoera hobetzeaz gain, lekuan adierazgarriak diren eta Natura 2000 sareko espazio izendatzea eragin duten gainerako habitaten eta basaespezieen kontserbazio-egoera ere hobetu nahi da. Era berean, aurrera egin nahi da, eta tresna horren eta etorkizunean hori ordezkatzeko duten tresnen azken helburua lortu nahi da: lekuaren osotasun ekologikoa

leheneratzea edo mantentzea, kasuak kasu, eta Natura 2000 sare ekologikoaren osotasunean modu koherentean inskribatzea.

Modu objektiboan egiazta daitezkeen adierazleetan oinarritzen den jarraipen-programari esker, ebaluatu ahal izango da helburu hori lortu den, baita dokumentuan definitzen diren berariazko helburuak erdietsi diren ere.

2. INFORMAZIO OROKORRA

2.1 Identifikazioa eta mugaketa

Natura 2000 sarean barnean hartzen den “Urkabustaizko irla-hariztiak” (ES2110003) espazioak 276,8 ha-ko azalera du, eta eskualde biogeografiko atlantikoan eta trantsizio atlantiko/mediterraneoko eskualde bioklimatikoan barnean hartzen da (2.1.taula). Zuiako eta Oiardo erreken haranetan kokatzen da, Arabako Lurralde Historikoko ipar-mendebaldeko koadrantean, eta honakoek inguratzen dute: Gorbeia mendiguneak, iparraldean; Gibillo mendilerroak, mendebaldean; eta Badaia mendilerroak, hegoaldean.

“Urkabustaizko irla-hariztiak” Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE) nagusiki Urkabustaizko udalerrian dago, Zuiako udalerrian sartzen den hego-ekialdeko muturra izan ezik (ikus 2.3. taula), bi udalerriak Zuiako Kuadrillan barnean hartzen dira.

2.1. taula. “Urkabustaizko irla-hariztiak” KBEaren oinarritzko datuak.

URKABUSTAIZKO IRLA HARIZTIAK (ES2110003) KBE	
Lekuaren kodea	ES2110003
BIL gisa proposatu zen data	2003/05
BIL gisa baieztatzeko data	2004/12
Zentroaren koordinatuak	42° 56' 49" N / 2° 52' 38" W
Azalera	276,8 ha
Altitude minimoa	590 m
Altitude maximoa	740 m
Batez besteko altitueda	652 m

ITURRIA: formulario normalizatu ofiziala.

2.2 Jabetza-erregimena

Katastro-egoerari dagokionez, Dehesako eta Garaiko sektoreak azpipartzela bakarra hartzen dute barnean, eta hirugarren sektoreak askotariko tamainako 90 partzela baino gehiago hartzen ditu, osorik edo zati batean (ikus 2.1. irudia).

KBEaren azaleraren % 84,7 (234,4 ha), herri-onurako mendiak dira (aurrerantzean HOM), eta Kontzejuen titulartasunekoak dira. Horrenbestez, Dehesako sektoreko HOMen titularra Oiardoko Kontzejua da (Urkabustaizko udalerrria), eta Godamo mendiko eta Zuiako haraneko sektoreko HOMen titulartasuna kontzeju hauei dagokie: Larrazketa, Abornikano (Urkabustaizko udalerrria) eta Lukiano (Zuiako udalerrria) (ikus 2.1. irudia). Garaiko sektorean ez dago herri-onurako mendirik.

2.2. taula. KBEaren azaleraren banaketa udalerrien arabera.

UDALERRIA	AZALERA	%
Urkabustaiz	257,2 ha	92,9
Zuia	19,6 ha	7,1

2.3 Natura 2000 Sareko beste leku batzuekiko lotura

“Urkabustaizko irla-hariztiak” KBEaren 1. eta 2. sektoreak, Oiardo inguruan kokatzen direnak, Oiardo errekaen arroan daude, sega-belardiak nagusi diren paisaia batean. Oiardo errekaen harana Gibillo mendilerroko eta Gorbeia mendiguneko basoek inguratuta dago. Baso horiek Arkamu-Gibillo-Arrastaria (ES2110004) BILaren eta Gorbeia (ES2110009) BILaren barruan sartzen dira, hurrenez hurren.

3. sektorea ere Natura 2000 sareko hainbat espazioz inguratuta dago, eta hegoaldean Baia ibaia (ES2110006) BILarekin egiten du muga.

Parrazar basoaren mendebaldean, kilometro batetik beherako distantzian Arkamu-Gibillo-Arrastaria (ES2110004) BILa dago, sega-belardiez, Abornikanoko Urialde auzoaz eta AP-68 autobideaz bereizita.

Godamo mendia eta Arkamu-Gibillo-Arrastaria (ES2110004) BILa, berriz, elementu hauek bereizten dituzte: Izarra herriak, A-3612 eta A-3314 errepideek, eta Bilbo-Madril trenbideak.

Godamo mendiaren iparraldean Gorbeia (ES2110009) BILa dago; bi espazio horiek bereizita daude sega-belardi atlantikoez eta A-2521 eta A-3612 errepideen gurutzaguneaz.

Natura 2000 sarearen beste espazio batzuekin lotzen diren alderdi horiez gain, “Urkabustaizko irla-hariztiak” KBEaren hiru sektoreak ez daude babestuta Euskal Autonomia

Erkidegoko natura-espazioen araudiaren ondoriozko beste irudi batzuekin (apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretu bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Babesten duen Legearen Testu Bategina), ezta estatuko edo nazioarteko bestelako babes-irudi batekin ere.

Euskal Autonomia Erkidegorako eta Arabako Lurralde Historikorako korridore ekologikoen sare bat mugatzeko proposamenak daude (Gurrutxaga 2005 eta Mallarach et al. 2005, hurrenez hurren). Proposamen horiek konektatu beharreko eremutzat jotzen dute KBEa, eta Natura 2000 sareko espazioen arteko eskualde-mailako fluxu ekologikoak bermatzea helburu duten korridore ekologikoak definitzen dituzte. Bi dokumentu horietan, Oiardotik hurbil dauden bi sektore horiek Oiardoko haranaren zati handi bat hartzen duten korridoreen barnean hartzen dituzte (nahiz eta dimentsio desberdinekin egiten duten, erreferentearen arabera). Korridore horiek honako Natura 2000 sareko espazio hauen artean kokatzen dira: Gorobel mendilerroa (ES0000244, mendebaldean), Arkamu-Gibillo-Arrastaria (ES2110004, hegoaldean) eta Gorbeia (ES2110009, ekialdean). Bi dokumentu horiek, halaber, Baia ibaiak eskualde osoaren konektagarritasunean duen garrantzia nabarmentzen dute, eta korridore ekologikoak ezarri dituzte Godamo mendiko eta Zuiako haraneko sektorearen eta Arkamu-Gibillo-Arrastaria (ES2110004, mendebaldean) eta Gorbeia (ES2110009, ipar-ekialdean) espazioen artean.

Izenak berak aditzera ematen duen bezalaxe, “Urkabustaizko irla-hariztiak” KBEa beste baso-eremu batzuez bakartuta geratu diren hariztiaz osatuta dago. Bakartuta geratzearen kausa giza jarduerak izan dira, hau da, historikoki Oiardo eta Zuiako haranetako lautadak okupatu dituzten gune biztanduak, labore-lurrak eta belardiak. Harizti-guneen egoera ekologiko ona kontserbatzeko, garrantzi handikoa da gune horien eta beste zuhaitz-espazio natural batzuen –batik bat baso-espazio naturalen– arteko konexioa mantentzea edo leheneratzea, eta, horrela, isolamendu-maila murriztea.

Oiardotik hurbil dauden KBEaren sektoreak bakartuta daude, bai haien artean, bai beste zuhaitz-espazio batzuekiko; izan ere, sektore horiek belardi-eremuak nagusi diren lautada batean daude, eta garraio-azpiegitura linealak ere badaude bertan (bi sektore horien artean bideratzen den A-2521 errepidea esate baterako). Testuinguru horretan, Oiardo errearen eta haren ibaiadarren –Matorral erreastoaren adibidez– ibai-ibilguak interes handiko elementuak dira Beluntza mendiko zuhaitz-eremuekin konektatzeko (ekialdean) –tokiko eskala batean ikusten den bezalaxe–. Nabarmendu behar da ibai-ibilguak eta sakanek ornodunen mugimenduak bideratzen dituztela; KBEaren kasuan, eta baso-izaerako fauna dela kontuan izanik, ibai-ibilguetan zehar zuhaitziak agertzeak erraztu egiten ditu fluxu horiek. Bi sektore horiek aztergai dugun eremuaren konektagarritasun orokorrean duten funtzioa ere nabarmendu behar da; pasabide gisa edo ibai-harri gisa (*stepping stones*) jarduten dute, betiere inguruan dauden espazio natural babestuen artean (Gorobel mendilerroa, Gorbeia eta Arkamu-Gibillo-Arrastaria).

Bestalde, Godamo mendiko eta Zuiako haraneko sektoreak ez du aurreko kasuetan deskribatutako isolamendu-maila bera; ekialdetik zuzenean lotzen da Bakubitxi sektoreko baso-gune zabalekin (Gorbeiarantz jarraitutasuna du) eta, hegoaldetik, Baia ibairen ibai-

ibilguarekin egiten du bat, hots, aztergai dugun eremuaren konektagarritasun ekologikoaren elementu bideratzaile nagusietako batekin (ibai-ibilguetako berezko espezieak izan zein baso-espezieak, oro har, izan). Edonola ere, Godamo mendiko eta Zuiako haraneko sektore honetan AP-68 autobideak oztopo-efektu handia sortzen du, eta habitatak zatikatzen ditu. Autobide horrek bitan banatzen du sektorea, eta Godamo menditik hurbilen dagoen zatia bakartu samar geratzen da. Hainbat ibai-ibilgu dago, hala nola Korteta eta Lapikari erreka. Erreka horiek hegoaldeko zatian sortu, autobidearen drainatze-egituretatik autobidea gainditu eta, Godamo mendia zeharkatuta, Baia ibaiaren ibaiadar den Badillo ibairantz jotzen dute. Erreka horiek interes handikotzat jotzen dira Godamo mendia hegoaldeko zatiarekin eta Badillo eta Baia ibaiekin lotzeko. Edonola ere, nabarmendu behar da gaur egun autobide azpiko drainatze horiek ez daudela egokituta, eta, hartara, arras murrizten dela ibilgu horien korridore funtzioa.

2.4 Kontserbazioaren legezko estatusa eta kudeaketako eta plangintzako tresnak

KBEaren azaleraren % 84 baino gehiago (234,4 ha) –Dehesako sektorea ia osorik eta Godamo mendiko eta Zuiako haraneko sektorearen zatirik handiena–, kontzejuetako herri-onurako mendien parte dira (ikus 2.1. irudia). Garaiko sektorean ez dago herri-onurako mendirik.


KBEan zein Arabako probintziaren gainerakoan, mendiei buruzko martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauak arautzen du mendien aprobetxamendua.

Ez dago KBEaren barruko baso-aprobetxamenduei buruzko datu zehatzik; nolana ere, Godamo mendiko hariztian zenbait haritz helduren sutarako mozketak egiten dira, eta horrek eragina du baso-dinamikaren prozesu naturaletan (Maldonado, Martínez de Arano eta Latorre 2006). Gainera, 3. sektorean nolabait utzita dagoen pinudi txiki bat dago (4,92 ha-koa) Lapikari ingurunean, baita soilgune bat ere Parrazarreko ameztian, intsinus pinua landatuta egon zen antzinako sail baten ondorioa. Azkenik, Aranbaz muinoko ameztien barrualdean eta Pabazilio basoan ere badaude soilguneak, segur aski baso-jardueran jatorria izango duten txilardiek hartzen dituztenak.

Abornikanotik hurbil dauden gune batzuetan, amezti eta haritz kandudenez osatutako zuhaitziak dehesa-itxura hartuta daude –hein batean edo bestean–, baina hori sektore horretako abeltzaintza-jardueraren emaitza izango da.

Foru Aldundiak baimentzen ditu, hala badagokio, baso-ustiapeneko jarduerak.

Oiardo inguruan dauden bi sektoreak zein Urkabustaiz udalerrriaren parte den 3. sektoreko eremua Urkabustaizko VI-10.043 ehiza-barrutian sartuta daude –5.675 ha-ko azalera du–. Ehiza-barrutiaren titularra Untzagako Administrazio Batzordea da, eta esleipenduna Urkabustaizko ehiztarien kirol-elkartea.



2..1. irudia Herri-onurako mendiak eta katastro-partzelak.

ITURRIA: Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren gaikako oinarri kartografikoak abiapuntu izanik guk geuk landutakoa.

3. HABITAT NATURALAK ETA ERDINATURALAK

Hurrengo taulan, Habitategi buruzko Direktibaren I. eranskinean habitat bakoitzerako erabilitako izena erabili da, eta, Batasunaren intereseko habitata ez denean, Ingurumeneko Europako Agentziak garatutako EUNIS sailkapen-sistemaren izena erabili da.

3.1. taula. Batasunaren intereseko habitatak "Urkabustaizko irla-hariztiak" KBEaren sektoreetan.

1. SEKTOREA: Dehesako sektorea (9,2 ha)							
Deskribapena / Habitata	Kodea	EUNIS kodea	Habitategiaren GIS poligono kop. KBEan	Habitategiaren azalera KBEan	Habitategiaren KBEan hartutako %a	BIHen %a	KBEak N2000 sarean jarritako habitategiaren %a
<i>Quercus robur</i> espeziearen harizti mesotrofo azpiatlantikoak	9160	G1.A1 (Y)	1	8,3 ha	3	3,4	1,5
2. SEKTOREA: Garaiko sektorea (2,6 ha)							
Deskribapena / Habitata	Kodea	EUNIS kodea	Habitategiaren GIS poligono kop. KBEan	Habitategiaren azalera KBEan	Habitategiaren KBEan hartutako %a	BIHen %a	KBEak N2000 sarean jarritako habitategiaren %a
<i>Quercus robur</i> espeziearen harizti mesotrofo azpiatlantikoak	9160	G1.A1 (Y)	1	1,8 ha	0,6	0,7	0,3
Erkameztiak	9240	G1.77 (V)	1	0,2 ha	< 0,1	< 0,1	< 0,1
3. SEKTOREA: Godamo mendiko eta Zuiako haraneko sektorea (265 ha)							
Deskribapena / Habitata	Kodea	EUNIS kodea	Habitategiaren GIS poligono kop. KBEan	Habitategiaren azalera KBEan	Habitategiaren KBEan hartutako %a	BIHen %a	KBEak N2000 sarean jarritako habitategiaren %a
Haltzadiak eta lizardiak	91E0*	G1.21 (Y)	2	1,2 ha	0,4	0,5	0,1
Pagadi azidofiloak	9120	G1.62	1	56,8 ha	20,5	23,1	0,4
<i>Quercus robur</i> espeziearen harizti mesotrofo azpiatlantikoak	9160	G1.A1 (Y)	2	66,5 ha	24	24,1	11,9
Ameztiak	9230	G1.7B1	2	103,5 ha	37,4	42,2	1,6
Txilardi lehor azidofiloak	4030	F4.23 (X)	3	2,6 ha	0,9	1	< 0,1
Sega-belardi atlantikoak	6510	E2.21	1	4,2 ha	1,5	1,7	0,3

ITURRIA: Batasunaren intereseko habitategiaren mapan egindako berrazterketa abiapuntu izanik guk geuk landutakoa.

4. FLORA

3. sektoreko zenbait puntutan gorostia (*Ilex aquifolium*) topatu da, zehazki pagadi azidofiloaren barruan eta, urriago, ameztietan. Gorostia 2011ko urtarrilaren 10eko AGINDUAN *interes bereziko*en kategorian zerrendatutako espezieen, azpiespezieen eta populazioen multzoaren barnean hartzen da –Agindua, 2011ko urtarrilaren 10ekoa, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburuarena, Basa eta itsas faunan eta floran arriskuan dauden espezieen Euskadiko zerrenda aldatzen duena, eta testu bakarra onartzen duena–.

Landa-lanean ikusi ez bada ere (segur aski loraldi goiztiarra izateagatik), Euskal Autonomia Erkidegoko flora baskularraren zerrenda gorriaren arabera, lilipa (*Narcissus nobilis*) ageri da “Urkabustaizko irla-hariztiak” KBEan, eta Euskal Autonomia Erkidegoan “ia arriskuan” (NT) jo da. Espezie hori –*Narcissus pseudonarcissus*, *nobilis* azpiespezia– babes bereziko erregimeneko espezieen kategoriaren barnean hartzen du otsailaren 4ko 139/2011 Errege Dekretuak.

5. FAUNA

Ornogabeak

Ia ez dago KBEko ornogabeei buruzko informaziorik. Eremu horren ezaugarriei erreparatuta, egur hilez elikatzen diren ornogabe saproxilikoetan kokatzen da interesa. Eremua BIL izendatzeko datuen formulario normalizatuetan, arkanbelea (*Lucanus cervus*) aipatu zen, espezie hori kokatu baitzen KBEari dagokion 10 km²-ko UTM koadroan (Galante eta Verdú 2000). Nolanahi ere, ondoren egin ziren azterketek ezarri zuten espezie horretarako ezagutzen diren erreferentziak ez zegozkiola KBEari (are gehiago oso urrun zeudela ezarri zuten), eta ez zuten egiaztatu espeziea bertan agertzen zela (Ugarte, Pagola eta Zabalegi 2002).

Egindako landa-lanean, halaber, ezin izan da egiaztatu arkanbelea KBEan agertzen dela, ezta Habitategi buruzko Direktibaren II. eranskineko beste espezie saproxiliko batzuk agertzen direla ere. Hala ere, Arabaren zatirik handienean arkanbelea espezie nolabait arrunta denez gero, ez da baztertu behar bertan ere agertzea.

Ornodunak

Habitategi buruzko Direktibaren II. eranskinean barnean hartzen diren espezieak identifikatu dira, baita *Basahegaztien kontserbazioari buruzko 2009ko azaroaren 30eko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009/147/EE Direktibaren* (aurrerantzean Hegaztiei buruzko Direktiba) I. eranskinean barnean hartzen diren espezieak, EAEn erregulartasunez agertzen diren eta Hegaztiei buruzko Direktibaren I. eranskinean barnean hartzen ez diren espezie migratzaileak edo EAEn eskualde-interesa duten espezieak ere (ikus 5.1. taula, 5.2. taula, 5.3. taula eta 5.4. taula).

Anfibioei dagokienez, KBEan baso-igel jauzkaria (*Rana dalmatina*) aipatu da. Espezie hori Habitategi buruzko 92/43/EEE Direktibaren IV. eranskinean jaso da, eta Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrendan –kaltebera kategoriarekin– eta Arriskuan dauden Espezieen Espainiako Zerrendan aipatu da. Araban espezie horren agerpena erabat lotu da zingira-landare ugari eta putzuak dituzten harizti atlantikoko eremuekin –eremu horiek arrautzak jartzeko baldintza egokiak eskaintzen baitizkiote–. Urkabustaizko udalerrian populazioak aurkitu dira (Tejado & Potes 2004). KBetik hurbil dauden hainbat puntutan, aldaketak gertatu dira espeziearen ugaltze-ingurunean, eta, ondorioz, gaur egun populazio txiki batzuk baino ez daude. Lortutako datuen arabera, Amurrio eta Urkabustaizko goi-eremuetako baso-igel jauzkariaren populazioak dira probintziako eta Iberiar Penintsularen osotasuneko populaziorik adierazgarrienak.

Habitategi buruzko Direktibaren II. eranskineko **narrastiei** dagokienez, KBEan Schreiber muskerra (*Lacerta schreiberi*) soilik ikusi da. Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko

Zerrendan agertzen den espezie bat da, baina ez du arrisku-maila handirik (interes bereziko espezie gisa zerrendatu da).

50 **hegazti**-espezieren agerpena egiaztatu da. Hegaztiei buruzko Direktibaren I. eranskinen barnean hartzen diren eta espazio honetan eta inguruan aipatzen diren sei espezieetatik (zata arrunta –*Caprimulgus europaeus*–, arrano sugezalea –*Circaetus gallicus*–, miru beltza –*Milvus migrans*–, miru gorria –*Milvus milvus*–, zapelatz liztorjalea –*Pernis apivorus*– eta pirripioa –*Lullula arborea*–), pirripioa eta miru gorria agertzen direla egiaztatu ahal izan da soilik, landa-lanak egin ziren aldiak eraginda. Pirripioa urte osoan agertzen da, eta puntualki ikusi da Godamo mendiko eta Zuiako haraneko sektorean. Miru gorria, aldiz, migrazioaldietan ez ezik, neguan ere agertzen da espazioan. KBEan zata arrunta ugaltzen dela egiaztatu ahal izan da soilik, baina oso posibleztat jo da zapelatz liztorjalea, miru beltza eta arrano sugezalea ere bertan ugaltzea.

Sei espezie horietarako, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren osotasunerako eskura dagoen informazioaren arabera, KBE honek ez du aparteko ekarpenik egiten espezie horien populazioetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura 2000 Sarearen osotasuna kontuan hartuta.

Altuera handieneko zuhaitzak talaia gisa erabiltzen dituzte hegazti harrapariak; halaxe egiten du miru gorriak (*Milvus milvus*). Zuhaitz altuak babesleku gisa baliatzen ditu eta hurbil dauden eremu irekietan elikatzen da. Era berean, zenbait hegazti-espeziek babesleku eta atsedenleku gisa erabiltzen dituzte irla-baso horiek, hala nola uda-txirtak (*Anthus trivialis*). Hegazti migratzaile horrek zuhaitz handiak dituzten irla-harizti horiek erabiltzen ditu.

Ugaztunei dagokienez, landa-lanean basurdea (*Sus scrofa*) edo orkatza (*Capreolus capreolus*) gisako unglatuen agerpena egiaztatu da, baita azkonarra (*Meles meles*), lepazuria (*Martes foina*) edo azeria (*Vulpes vulpes*) gisako haragijaleak eta trikua (*Erinaceus europaeus*) edo satorra (*Talpa europea*) gisako ugaztun txikiak ere.

KBEan ageri den interes handieneko ugaztuna Bechstein saguzarra (*Myotis bechsteinii*) da, Euskal Autonomia Erkidegoan galzorian dago eta Habitategi buruzko Direktibaren II. eranskinaren barnean hartzen da. Godamo mendiko eta Zuiako haraneko sektorean habia egiten duen puntu bat identifikatu da. Abornikanoko hariztiko haritz kandudun baten zalogune batean kokatu da kolonia. Hogeita hamar bat ale dituen kolonia hori Euskal Autonomia Erkidegoan ezagutzen den bakarra da, Toloño mendilerroaren ingurunean daudenez gain. 2005eko uztailean edoskitze-zantzuak zituen eme bat harrapatu zuten (Garin, Ahiartza, Goiti eta Salsamendi 2006). Baso-espezie bat da, hostoerorkorreko basoak zein koniferoen basoak hartzen dituena. Mehatzeetan, leizeetan eta haitzuloetan babesten da, baita zuhaitzen zaloguneetan ere (Europar eraikinetan eta habiak egiteko kutxetan ere aipatu da). Kolonia horretako aleak “Baia ibaia” BILaren harizti-eremuetara joaten dira elikatzerara.

Aurreko paragrafoetan aipatutako intereseko espezie horietako bakar batek ere ez du kudeaketa-planik.

Irla-harizti horiek labore-lurren eta espazio irekien, batik bat, matrize batean daudenez gero, baso-habitat gisa balioa dute, eremu horiekin lotzen baitira ingurune horietako berezkoak diren fauna-espezieak, hala nola zapelatz arrunta (*Buteo buteo*), pagausoa (*Columba palumbus*), okil handia (*Dendrocopos major*) eta basurdea. Edonola ere, eremu horien dimentsio txikiak mugatu egiten ditu habitat horien berezko ezaugarriak (inguruneak baino hezetasun handiagoa izatea, argitasun txikiagoa izatea) eta, gainera, ez dute barne-basoko eremurik (basoaren kanpoaldearen eragin oso txikia jasotzen duten eremuak), edo oso txikiak dituzte, eta, hartara, gehitu egiten da ertz-efektua. Horrek guztiak, beraz, kalte egiten dio baso-espezie zorrotzenen kontserbazioari, eta zaildu egiten du baso-habitaten berezko prozesu ekologikoen integritatea bermatzea.

Zuhaixka-eremuak edo dentsitate txikiagoko zuhaizti-eremuak egokiak dira beste espezie batzuk agertzeko, hala nola mendi-txirta (*Anthus spinoletta*), sasi-txinboa (*Sylvia communis*) edo txio arrunta (*Phylloscopus collybita*). Hariztiaren zenbait eremutan izan den gehiegizko abeltzaintzak eragina izan dezake zuhaixken estalduran eta, hortaz, horiekin lotzen diren hegazti-espezieengan.

Ez dago KBEaren ornodunen populazio-dinamikei edo -fluxuei buruzko datu zehatzik. Hala ere, ikusi da migrazioan diren zenbait hegazti-espeziek KBEa baliatzen dutela, hala nola miru gorriak, uda-txirtak, mendi-txirtak (*Anthus spinoletta*), sasi-txinboak (*Sylvia communis*) edo euli-txori grisak (*Muscicapa striata*).

Nabarmendu behar da KBEaren hurbileko ingurunean intereseko hainbat espezie dagoela, adibidez mazkar arantzduna (*Cobitis calderoni*), ibai-kabuxa (*Salaria fluviatilis*), uhalde-enara (*Riparia riparia*), amiltxori txikia (*Ixobrychus minutus*) eta igaraba (*Lutra lutra*). Espezie horiek guztiak Baia ibaiarekin lotzen den ibai-ibilguan eta ibai-bazterreko landaredian finkatuta daude. KBEan Baia ibaiaren ibaiadar diren zenbait erreka dagoen arren, erreka horietan ez dira aurreko espezie horiek hauteman, segur aski erreka horiek potentzia txikikoak baitira –ez dute ahalbidetzen espezie horiek bertan bizitzea– eta ez baitaude –edo oso urriak baitira– espezie horiek beharrezkoak dituzten ibai-bazterreko habitatak.

5.1. taula. Habitategi buruzko Direktibaren II. eranskinean jasotako espezieak.

Espeziea		KBE (ES2110003)	Hurbil dauden naturaguneak				Babes-kategoria			
Izen zientifikoa	Izen arrunta	Urkabustaizko irla-hariztiak	Arkamu-Gibillo-Arrastaria (2110004)	Gorbeia (2110009)	Baia ibaia (2110006)	Badaia mendil.	IV. eransk. ¹	V. eransk. ²	AEEUZ ³	AEEZ ⁵
<i>Lacerta schreiberi</i> *	Schreiber muskerra	x	x	x	-	-	x		IB	BBEBZ
<i>Myotis bechsteinii</i>	Bechstein saguzarra	x	-	x	-	-	x		GA	KA

ITURRIA: Natura 2000 espazioen formulario normalizatuak, Eusko Jaurlaritzaren gaikako geruza kartografikoak, estatuko eta autonomia-erkidegoetako atlasak, EAerako Natura 2000 Sarearen plan zuzentzailearen zirriborroa, eta landa-lanaren bidez lortutako gure datuak.

Gidoi batekin, “-”, adierazi da espezie bat leku jakin batean agertzeari buruzko informazioak ez dugunean.

¹Habitategi buruzko Direktibaren IV. eranskina.

²Habitategi buruzko Direktibaren V. eranskina.

³AEEUZ: Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrendaren arrisku-kategoria. GA: galzorian; K: kaltebera; B: bakana; IB: interes berezia.

⁵AEEZ: Arriskuan dauden Espezieen Espainiako Zerrenda, urtarilaren 12ko AAA75/2012 Aginduaren arabera. GA: galzorian; K: kaltebera BBEBZ: zerrendan barnean hartzen ez diren babes bereziko erregimeneko espezieak.

* “Urkabustaizko irla-hariztiak” KBEan segur aski agertzen diren espezieak.

5.2. taula. Hegaztiei buruzko Direktibaren I. eranskinean jasotako espezieak.

Espeziea		KBE (ES2110003)	Hurbil dauden naturaguneak				Babes-kategoria	
Izen zientifikoa	Izen arrunta	Urkabustaizko irla-hariztiak	Arkamu-Gibillo-Arrastaria (ES2110004)	Gorbeia (ES2110009)	Baia ibaia (ES2110006)	Badaia mendilerroa	AEEUZ ¹	AEEZ ³
<i>Caprimulgus europaeus</i>	Zata arrunta	x	x	x	x	-	IB	BBEBZ
<i>Circaetus gallicus</i>	Arrano sugezalea	x	x	x	-	x	B	BBEBZ
<i>Lullula arborea</i>	Pirripioa	x	x	x	-	-		BBEBZ
<i>Milvus migrans</i>	Miru beltza	x	x	x	x	-		BBEBZ
<i>Milvus milvus</i>	Miru gorria	x	x	-	-	x	GA	GA
<i>Pernis aviporus</i>	Zapelatz liztorjalea	x	x	x	-	-	B	BBEBZ

ITURRIA: Natura 2000 espazioen formulario normalizatuak, Eusko Jaurlaritzaren gaikako geruza kartografikoak, estatuko eta autonomia-erkidegoetako atlasak, EAERako Natura 2000 Sarearen plan zuzentzailearen zirriborroa, eta landa-lanaren bidez lortutako gure datuak.

Gidoi batekin, "-", adierazi da espezie bat leku jakin batean agertzeari buruzko informazioarik ez dugunean.

¹AEEUZ: Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrendaren arrisku-kategoria. GA: galzorian; K: kaltebera; B: bakana; IB: interes berezia.

³AEEZ: Arriskuan dauden Espezieen Espainiako Zerrenda, urtarrilaren 12ko AAA75/2012 Aginduaren arabera. GA: galzorian; K: kaltebera BBEBZ: zerrendan barnean hartzen ez diren babes bereziko erregimeneko espezieak.

5.3. taula. EAEn erregulatasunez agertzen diren espezie migratzaileak, Hegaztiei buruzko Direktibaren I. eranskinean jaso ez direnak.

Espezia		KBE (ES2110003)	Hurbil dauden naturaguneak				Babes-kategoria	
Izen zientifikoa	Izen arrunta	Urkabustaizko irla-hariztiak	Arkamu-Gibillo-Arrastaria (ES2110004)	Gorbeia (ES2110009)	Baia ibaia (ES2110006)	Badaia mendilerroa	AEEUZ ¹	AEEZ ³
<i>Anser anser</i>	Antzara	x	-	-	-	-		
<i>Accipiter nisus</i>	Gabiraia	x	-	x	-	x	IB	BBEBZ
<i>Buteo buteo</i>	Harris arrunta	x	-	-	-	-		BBEBZ
<i>Falco subbuteo</i>	Zuhaitz-belatza	x	x	x	x	-	B	BBEBZ
<i>Vanellus vanellus</i>	Hegabera	x	-	-	-	-		
<i>Scolopax rusticola</i>	Oilagorra	x	x	-	x	-		
<i>Columba palumbus</i>	Pagausoa	x	-	-	-	x		
<i>Streptotelia turtur</i>	Usapal arrunta	x	-	-	x	-		
<i>Cuculus canorus</i>	Kuku arrunta	x	x	x	x	-		BBEBZ
<i>Otus scops</i>	Apo-hontza	x	x	-	x	-		BBEBZ
<i>Jynx torquilla</i>	Lepitzulia	x	x	x	x	-	IB	BBEBZ
<i>Hirundo rustica</i>	Enara arrunta	x	x	x	-	-		BBEBZ
<i>Anthus trivialis</i>	Uda-txirta	x	x	x	-	-		BBEBZ

Espezia		KBE (ES2110003)	Hurbil dauden naturaguneak				Babes-kategoria	
Izen zientifikoa	Izen arrunta	Urkabustaizko irla-hariztiak	Arkamu-Gibillo-Arrastaria (ES2110004)	Gorbeia (ES2110009)	Baia ibaia (ES2110006)	Badaia mendilerroa	AEEUZ ¹	AEEZ ³
<i>Anthus spinoletta</i>	Mendi-txirta	x	-	x	-	-		BBEBZ
<i>Anthus pratensis</i>	Negu-txirta	x	x	x	-	-		BBEBZ
<i>Muscicapa striata</i>	Euli-txori grisa	x	x	x	x	-		BBEBZ
<i>Motacilla alba</i>	Buztanikara zuria	x	-	-	-	-		BBEBZ
<i>Motacilla cinérea</i>	Buztanikara horia	x	-	-	-	-		BBEBZ
<i>Erithacus rubecula</i>	Txantxangorria	x	-	-	-	-		BBEBZ
<i>Phoenicurus ochruros</i>	Buztangorri iluna	x	-	-	-	-		BBEBZ
<i>Phoenicurus phoenicurus</i>	Buztangorri argia	x	x	x	x	-	K	K
<i>Saxicola torquata</i>	Pitxartxar burubeltza	x	-	-	-	-		BBEBZ
<i>Turdus merula</i>	Zozoa	x	x	-	-	x		
<i>Turdus iliacus</i>	Birigarro txikia	x	x	x	-	-		
<i>Turdus philomelos</i>	Birigarro arrunta	x	-	-	-	-		
<i>Turdus viscivorus</i>	Garraztarroa	x	-	-	-	x		

Espezia		KBE (ES2110003)	Hurbil dauden naturaguneak				Babes-kategoria	
Izen zientifikoa	Izen arrunta	Urkabustaizko irla-hariztiak	Arkamu-Gibillo-Arrastaria (ES2110004)	Gorbeia (ES2110009)	Baia ibaia (ES2110006)	Badaia mendilerroa	AEEUZ ¹	AEEZ ³
<i>Hippolais polyglotta</i>	Sasi-txori arrunta	x	x	x	x	-		BBEBZ
<i>Sylvia borin</i>	Baso-txinboa	x	x	x	x	-		BBEBZ
<i>Sylvia communis</i>	Sasi-txinboa	x	-	-	-	-		BBEBZ
<i>Sylvia atricapilla</i>	Txinbo kaskabelta	x	x	x	-	-		BBEBZ
<i>Phylloscopus Bonelli</i>	Txio lepazuria	x	x	x	x	-		BBEBZ
<i>Phylloscopus trochilus</i>	Txio horia	x	x	x	-	-	B	BBEBZ
<i>Phylloscopus collybita</i>	Txio arrunta	x	x	-	-	-		BBEBZ
<i>Ficedula hypoleuca</i>	Euli-txori beltza	x	x	x	x	-	B	BBEBZ
<i>Sturnus vulgaris</i>	Arabazozo pikarta	x	-	x	-	-		
<i>Fringilla coelebs</i>	Txonta-arrunta	x	x	-	-	-		
<i>Fringilla montifringilla</i>	Negu-txonta	x	x	-	-	-		BBEBZ
<i>Carduelis chloris</i>	Txorrua	x	x	-	-	-		
<i>Carduelis carduelis</i>	Karnaba	x	x	-	-	-		

Espeziea		KBE (ES2110003)	Hurbil dauden naturaguneak				Babes-kategoria	
Izen zientifikoa	Izen arrunta	Urkabustaizko irla-hariztiak	Arkamu-Gibillo-Arrastaria (ES2110004)	Gorbeia (ES2110009)	Baia ibaia (ES2110006)	Badaia mendilerroa	AEEUZ ¹	AEEZ ³
<i>Carduelis spinus</i>	Tarina	x	x	x	x	-	IB	BBEBZ
<i>Loxia curvirostra</i>	Mokokerra	x	-	-	-	-		BBEBZ
<i>Pyrrhula pyrrhula</i>	Gailupa	x	x	-	-	-		BBEBZ
<i>Coccothraustes coccothraustes</i>	Mokolodia	x	x	x	-	-	IB	BBEBZ

ITURRIA: Natura 2000 espazioen formulario normalizatuak, Eusko Jaurlaritzaren gaikako geruza kartografikoak, estatuko eta autonomia-erkidegoetako atlasak, EAERako Natura 2000 Sarearen plan zuzentzailearen zirriborroa, eta landa-lanaren bidez lortutako gure datuak.

Gidoi batekin, “-”, adierazi da espezie bat leku jakin batean agertzeari buruzko informaziorik ez dugunean.

¹AEEUZ: Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrendaren arrisku-kategoria. GA: galzorian; K: kaltebera; B: bakana; IB: interes berezia.

³AEEZ: Arriskuan dauden Espezieen Espainiako Zerrenda, urtarrilaren 12ko AAA75/2012 Aginduaren arabera. GA: galzorian; K: kaltebera BBEBZ: zerrendan barnean hartzen ez diren babes bereziko erregimeneko espezieak.

5.4. taula. EAEn eskualde-interesa duten espezieak.

Espeziea		KBE (ES2110003)	Hurbil dauden naturaguneak				Babes-kategoria			
Izen zientifikoa	Izen arrunta	Urkabustaizko irla-hariztiak	Arkamu-Gibillo-Arrastaria (2110004)	Gorbeia (2110009)	Baia ibaia (2110006)	Badaia mendilerroa	IV. eransk. ¹	V. eransk. ²	AEEUZ ³	AEEZ ⁵
<i>Mesotriton alpestris</i>	Gailurretako uhandrea	x	x	x	x	-			K	K
<i>Rana dalmatina</i>	Baso-igel jauzkaria	x	x	x	x	x	x		K	K
<i>Rana ibérica*</i>	Baso-igel iberiarra	x	x	x	x	-	x		IB	BBEBZ
<i>Lacerta lepida*</i>	Gardatxoa	x	x	-	x	x			IB	
<i>Dendrocopos minor</i>	Okil txikia	x	-	x	x	-			IB	BBEBZ
<i>Corvus corax</i>	Erroia	x	-	-	-	-			IB	
<i>Martes martes</i>	Lepahoria	x	-	x	-	-		x	B	
<i>Glis glis</i>	Muxar grisa	x	x	x	-	-			K	

Ikus oina taularen amaieran.

5.4. taula. EAEn eskualde-interesa duten espezieak (jarraipena).

Espeziea		KBE (ES2110003)	Hurbil dauden naturaguneak				Babes-kategoria			
Izen zientifikoa	Izen arrunta	Urkabustaizko irla-hariztiak	Arkamu-Gibillo-Arrastaria (2110004)	Gorbeia (2110009)	Baia ibaia (2110006)	Badaia mendil.	IV. eransk. ¹	V. eransk. ²	AEEUZ ³	AEEZ ⁵
<i>Mustela putorius</i>	Ipurtatsa	x	x	x	-	-		x	IB	

ITURRIA: Natura 2000 espazioen formulario normalizatuak, Eusko Jaurlaritzaren gaikako geruza kartografikoak, estatuko eta autonomia-erkidegoetako atlasak, EAerako Natura 2000 Sarearen plan zuzentzailearen zirriborroa, eta landa-lanaren bidez lortutako gure datuak.

Gidoi batekin, “-”, adierazi da espezie bat leku jakin batean agertzeari buruzko informaziorik ez dugunean.

¹Habitategi buruzko Direktibaren IV. eranskina.

²Habitategi buruzko Direktibaren V. eranskina.

³AEEUZ: Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrendaren arrisku-kategoria. GA: galzorian; K: kaltebera; B: bakana; IB: interes berezia.

⁵AEEZ: Arriskuan dauden Espezieen Espainiako Zerrenda, urtarrilaren 12ko AAA75/2012 Aginduaren arabera. GA: galzorian; K: kaltebera BBEBZ: zerrendan barnean hartzen ez diren babes bereziko erregimeneko espezieak.

* “Urkabustaizko irla-hariztiak” KBEan segur aski agertzen diren espezieak.

6. BABES BEREZIKO ERREGIMENEAN DAUDEN HABITAT NATURALAK ETA ESPEZIEAK

Ondoren, lekuan dauden eta “babes bereziko erregimenean” daudela irizten den habitat naturalak (6.1. taula) eta basafloorako eta basafaunako espezieak (6.2. taula) zerrendatuko dira.

Halakotzat joko dira kontserbazioaren mende dauden eta, horrenbestez, haien balio zientifikoagatik, ekologikoagatik, kulturalagatik edo haien berezitasunagatik, bakantasanagatik edo arrisku-mailagatik arreta eta babes berezia merezi duten habitat natural, espezie, azpiespezie eta populazio guztiak, baita Habitategi eta Hegaztiegia buruzko Direktiben eranskinetan azaltzen direnak edo Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko eta Espainiako Zerrendetan agertzen direnak. Horrexegatik, hain zuzen ere, izendatu dira “Urkabustaizko irla-hariztiak” Natura 2000 sareko espazio, eta mantendu behar dira aldeko kontserbazio-egoeran.

Espezie eta habitat natural horiek ez dute beti berariazko neurri aktiboak ezartzea eskatuko. Batzuetan, aldeko kontserbazio-egoeran daude, eta ez da egoera hori arriskuan jarriko duen arautu beharreko jarduerarik hauteman. Beste batzuetan, berriz, haien kontserbazioa bermatuta dago funtsezkoak edo kudeaketaren helburu diren elementuetarako hartzen diren kontserbazio-neurriekin –hurrengo atalean finkatu dira funtsezkoak edo kudeaketaren helburu diren elementu horiek– .

Nolanahi ere, habitat eta espezie horiek erregimen orokor prebentibo baten babespean daudenez gero, haiengan eragin adierazgarria izan dezaketen jarduera guztiak egoki ebaluatu behar dira, indarrean dagoen legerian ezarritako moduan.

Habitategi dagokienez, KBEaren babesean funtsezko helburu gisa planteatzen da horiek kontserbatzeko lagungarriak izango diren kontserbazio-neurriak hartzea eta horien kontserbazio-egoera arian-arian hobetzea, aldeko kontserbazio-egoera lortu arte. KBEaren esparruko kudeaketak eta, zehazki, bertan gauza daitezkeen erabileren baimenak aintzat hartu beharko du 92/43/EEE Direktibak zerrendatutako habitaten babesa eta hobekuntza. Hori dela eta, habitat horien kartografia oinarritzko erreferentzia izango da kudeaketa horretarako.

Gaur egun habitat horiek duten banaketa eta okupazioa ez da egonkorra; izatez, batetik, bilakaera ekologiko naturalaren mende dago, eta, bestetik, KBEan garatzen diren erabilera tradizionalen baldintzapean dago. Edonola ere, espazio horien kudeaketak bermatu beharko du bilakaera horrek gaur egun zerrendatutako habitaten kontserbaziorantz eta hobekuntzarantz joko duela, baita habitat horiek osatzen edo okupatzen dituzten espezieen kontserbaziorantz eta hobekuntzarantz ere.

6.1. taula. Habitaten zerrenda

Kodea	EUNIS kodea	Habitata
9120	G1.62	Pagadi azidofiloak
9160	G1.A1 (Y)	<i>Quercus robur</i> espeziearen harizti mesotrofo azpiatlantikoak
9230	G1.7B1	Ameztiak
9240	G1.77 (V)	Erkameztiak
91E0*	G1.21 (Y)	Haltzadiak eta lizardiak
4030	F4.23 (X)	Txilardi lehor azidofiloak
6510	E2.21	Sega-belardi atlantikoak

ITURRIA: Batasunaren intereseko habitaten mapan egindako berrazterketa abiapuntu izanik guk geuk landutakoa.

6. 2. taula. Espezieen zerrenda

Izen arrunta	Izen zientifikoa	Habitaten Direktiba	Hegaztien Direktiba	AEEZ ¹	AEEUZ ²
ORNODUNAK					
Baso-igel jauzkaria	<i>Rana dalmatina</i>	IV		K	K
Miru gorria	<i>Milvus milvus</i>		I	GA	GA
Uda-txirta	<i>Anthus trivialis</i>		I	BBEBZ	B
Negu-txirta	<i>Anthus pratensis</i>		I	BBEBZ	
Mendi-txirta	<i>Anthus spinoletta</i>		I	BBEBZ	B
Sasi-txinboa	<i>Sylvia communis</i>			BBEBZ	
Txio arrunta	<i>Phylloscopus collybita</i>			BBEBZ	
Txio iberiarra	<i>Phylloscopus ibericus</i>			BBEBZ	
Euli-txori grisa	<i>Muscicapa striata</i>			BBEBZ	
Tarina	<i>Carduelis spinus</i>			BBEBZ	IB
Mokolodia	<i>Coccothraustes coccothraustes</i>			BBEBZ	IB
Mokokerra	<i>Loxia curvirostra</i>			BBEBZ	

Izen arrunta	Izen zientifikoa	Habitaten Direktiba	Hegaztien Direktiba	AEEZ ¹	AEEUZ ²
Bechstein saguzarra	<i>Myotis bechsteinii</i>	II,IV		K	GA
Muxar grisa	<i>Glis glis</i>				K

¹ AEEZ: Arriskuan dauden Espezieen Espainiako Zerrenda, urtarrilaren 12ko AAA75/2012 Aginduaren arabera. GA: galzorian; K: kaltebera BBEBZ: zerrendan barnean hartzen ez diren babes bereziko erregimeneko espezieak.

² AEEUZ: Basa eta Itsas Faunan eta Floran Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrenda: GA: galzorian; K: kaltebera; B: bakana; IB: interes berezia.

7. BABES BEREZIKO ERREGIMENEAN DAUDEN HABITAT NATURALEI, ETA FLORARI ETA FAUNARI BURUZKO ARAUDIAK

“Babes bereziko erregimenean dagoen habitat edo espezie” bat egoera kaskarrean dagoela zehazten denean, funtsezko edo kudeaketaren helburu den elementutzat ere joko da. Hartara, berehala hartuko dira beharrezkoak diren berariazko kontserbazio-neurriak, baldin eta beste funtsezko elementu baterako kudeaketa-tresnan jada aurreikusten ez badira eta espezie edo habitat horrek aldeko kontserbazio-egoera lortzeko behar bestekotzat jotzen ez badira. Kasu horretan, hurrengo taulan zehaztuko dira neurri horiek:

Habitatak	Kontserbazio-egoera	Aldekoak zaizkion erregulazioak	Aldekoak zaizkion jardunak (1)
Konektagarritasuna eta irla-basoen beste prozesu ekologiko batzuk		1, 3, 6, 7, 8, 9, 15, 16, 27, 28, 29, 36, 37, 38, 39, 40, 41	
Pagadi azidofiloak (EBko 9120 kodea)	Desegokia	1, 2, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 13, 14, 15, 16, 17, 25, 36, 37, 38, 39, 40 eta 41	
<i>Quercus robur</i> espeziearen harizti mesotrofo azpiatlantikoak (EBko 9160 kodea)	Desegokia	1, 2, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 13, 14, 15, 16, 17, 25, 26, 34, 34, 35, 36, 37, 38, 39, 40 eta 41	
Ameztiak (EBko 9230 kodea)	Desegokia	1, 2, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 13, 14, 15, 16, 17, 25, 36, 37, 38, 39, 40 eta 41	
Erkameztiak (EBko 9240 kodea)	Txarra	1, 2, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 13, 14, 15, 16, 17, 25, 26, 36, 37, 38, 39, 40 eta 41	
Txilardi lehor azidofiloak (EBko 4030 kodea)	Aldekoa	14, 36, 37, 38, 39, 40 eta 41	
Sega-belardi atlantikoak (EBko 6510 kodea)	Desegokia	14, 29, 37, 38, 39, 40, 41 eta 39	
Haltzadiak eta lizardiak (EBko 91E0* kodea)	Desegokia	1, 2, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 11, 12, 13, 14, 16, 28, 31, 36, 37, 38, 39, 40 eta 41	
Espezieak	Kontserbazio-egoera	Aldekoak zaizkion erregulazioak	Aldekoak zaizkion jardunak
ANFIBIOAK			
Baso-igel jauzkaria (<i>Rana dalmatina</i>)	Ezezaguna	18, 19, 27, 28, 29, 34, 36, 37, 38, 39, 40 eta 41	
HEGAZTIAK			
Miru gorria (<i>Milvus milvus</i>)	Desegokia	5, 12, 31, 33 eta 39	
Uda-txirta (<i>Anthus trivialis</i>)	Aldekoa	1, 2, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 12, 15, 21, 22, 23, 26, 27, 28, 29 eta 39	

Negu-txirta (<i>Anthus pratensis</i>)	Desegokia	1, 2, 10, 14, 15, 23, 26, 27, 29 eta 39	
Mendi-txirta (<i>Anthus spinoletta</i>)	Desegokia	1, 2, 10, 14, 15, 23, 26, 27, 29 eta 39	
Sasi-txinboa (<i>Sylvia communis</i>)	Txarra	1, 2, 10, 14, 15, 23, 26, 27, 29 eta 39	
Txio arrunta (<i>Phylloscopus collybita</i>)	Aldekoa	1, 2, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 15, 21, 22, 23, 26, 27, 28, 29 eta 39	
Txio iberiarra (<i>Phylloscopus ibericus</i>)	Aldekoa	1, 2, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 15, 21, 22, 23, 26, 27, 28, 29 eta 39	,
Euli-txori grisa (<i>Muscicapa striata</i>)	Aldekoa	1, 2, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 15, 21, 22, 23, 26, 27, 28, 29 eta 39	
Tarina (<i>Carduelis spinus</i>)	Aldekoa	1, 2, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 15, 21, 22, 26, 27, 28, 29 eta 39	, ,
Mokolodia (<i>Coccothraustes coccothraustes</i>)	Aldekoa	1, 2, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 13, 15, 21, 22, 26, 27, 28, 29 eta 39	,
Mokokerra (<i>Loxia curvirostra</i>)	Desegokia	1, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 13, 15, 21, 22, 27, 29 eta 39	,
UGAZTUNAK			
Bechstein saguzarra (<i>Myotis bechsteinii</i>)	Ezezaguna	1, 2, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 14, 16, 17, 18, 19, 21, 22, 23, 24, 25, 26, 27, 28, 30, 32, 36, 37, 38, 39, 40 eta 41	
Muxar grisa (<i>Glis glis</i>)	Ezezaguna	1, 2, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 13, 15, 21, 22, 23, 26, 27, 28, 29 eta 39	

(1) Arabako Foru Aldundiak zehaztu beharreko jardunak

8. “URKABUSTAIZKO IRLA HARIZTIAK” KBE-RAKO PREBENTZIO ERREGIMENA

8.1 Prebentzio-erregimen orokorra

1. Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 45. artikuluan arabera, edozein planek, programak edo proiektuk –lekuaren zuzeneko kudeaketarekin zerikusirik izan gabe nahiz horretarako beharrik izan gabe–, eragin nabarmena izan badezake leku horretan (bai banaka, bai beste plan edo proiektu batzuekin konbinatuta), lekuan dituen ondorioei buruzko ebaluazio egokiaren mende jarriko da, bertako kontserbazio-helburuak kontuan izanik. Ebaluazio horren ondorioak kontuan izanda, eta 45. artikuluan horren 5. atalean xedatutakoaren mende, organo aginpidedunek, planak, programak edo proiektuak onartu edo baimendu ahal izateko, dagokion lekuaren segurtasunari kalterik eragingo ez diotela ziurtatu eta, hala badagokio, jendaurrean jarri ondoren soilik adierazi ahal izango dute haiekiko adostasuna.

42/2007 Legearen 45. artikuluan ezarritako erregimen orokorraren kaltetan izan gabe, kontuan hartu da leku bakoitzean funtsezkotzat hartutako habitat edo espezieak, baita espezie katalogatuak edo babes bereziko erregimenean daudenak ere asaldatzea edo ezabatzea ekar dezakeen edozein plan, proiektu edo jarduerak eragin nabarmena ekar dezakeela eta, hortaz, behar bezala ebaluatu behar dela.

45. artikuluan horretan aurreikusten diren ondorioetarako, ingurumen-ebaluazioko araudian aurreikusitako prozeduren barruan finkatuko da ebaluazio egokia, betiere lekuaren kontserbazio-helburuak kontuan izanda.

2. Eraginei buruzko ebaluazioaren ondorioak negatiboak izanik ere, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legean aurreikusten diren salbuespeneko baldintzak betetzeagatik gauzatu beharreko edozein jardunen aurrean, beharrezko konpentsazio-neurriak hartu beharko dira, bai Natura 2000 Sarearen koherentzia globala bermatzeko, bai jarduera horren eraginpean egon diren babes bereziko erregimeneko elementu guztien aldeko kontserbazio-egoera ziurtatzeko.
3. Babes bereziko erregimeneko elementuen gainean kalteak eragin ditzakeen edozein jardunek behar bezala erreparatu beharko ditu eragin dituen kalteak, eta haien kostua osorik ordaindu beharko du, nahiz eta kalteak prebenitzeko neurriak hartu dituen, betiere ingurumen-erantzukizunari buruzko 26/2007 Legean aurreikusten den moduan.
4. Aztergai diren elementuen erreferentziako kontserbazio-egoerari egindako kalteak eta eska daitekeen lehengoratzearren arrakasta ebaluatu ahal izateko, eta babes bereziko erregimeneko elementuen aldeko kontserbazio-egoera lortzen dela edo mantentzen

dela ziurtatzeko –betiere kasuak kasu ezarritako helburu neurgarrien arabera–, alde zuzenetik definitu beharko da gaur egungo egoera edo oinarritzko egoera –aurrez ezagutzen ez bada–. Horretarako, metodo kuantitatiboak aplikatuko dira, eta hori ezinezkoa denean, estimazio kualitatibo fidagarriak.

5. Ondoren, aldi behin ebaluatu beharko da kontserbazio-egoera, baina Euskal Autonomia Erkidegoko Natura 2000 Sareko beste leku batzuetan lortutako emaitzekin alderatzeko aukera emango duten prozedura estandarizatuen bidez. Hartara, sarearen osotasunerako kontserbazio-egoera kalkulatu ahal izango da. Prozedura horiek kudeaketa-tresnaren jarraipen-programari txertatu ahal izango zaizkio, eta espezie edo habitat bakoitzerako, multzo taxonomiko bakoitzerako edo beste taxon multzo batzuetarako egin ahal izango dira, betiere espezie guztien balorazioa bereizita egiteko aukera emango duen moduan.

Aplikatzekoa den araudi sektorialaren kaltetan izan gabe (batez ere, Mendiei buruzko araudiari dagokionez), bidezko hartu da jarraian adierazten diren arauak bereziki aipatzea.

8.2 Nekazaritza- eta abeltzaintza-erabilerarako prebentzio-erregimena

1. KBEan, aplikatzekoa izango da ekainaren 7ko 112/2011 Dekretuaren bidez onartutako Nekazaritza-lanetan Egoki Jarduteko Kodea.
2. Nekazaritza- eta abeltzaintza-jardueren garapenak bateragarria izan beharko du habitat naturalen kontserbazioarekin, baita espezieek babesteko eta habiak egiteko erabiltzen dituzten paisaiaren elementuekin bateragarria eta espezieen hedapenerako eta populazioen arteko harremanetarako lagungarriak diren konexio-elementuekin bateragarria ere.
3. Basafaunaren sakabanaketa eta joan-etorriak bermatzeko eta horien hilkortasuna saihesteko beharrezko baldintzak aintzat hartuta instalatuko dira abeltzaintzarako itxiturak.

8.3 Ehizarako eta arrantzarako prebentzio-erregimena

1. Debekatuta dago KBEan dauden basafaunako eta basafloorako espezieentzat mehatxufaktore izan daitezkeen ehiza- edo arrantza-faunako espezieen edo barietateen birpopulazioak edo askapenak, ekimen pribatukoak izan zein publikokoak izan.

2. KBEan fauna legez kanpo edo halabeharrez sartzen bada, ez da horien ehiza- edo arrantza-aprobetxamendua oro har baimenduko, eta espezieen kontrolerako neurri egokiak sustatuko dira horiek desagerrarazteko.

8.4 Ura erabiltzeko prebentzio-erregimena

1. Berez edo beste aprobetxamendu batzuekin konbinatuta emari ekologikoen erregimena alda dezaketen lur gaineko eta lurpeko uren hargune eta aprobetxamendu berriak abian jarri aurretik, KBEan kontserbatu beharreko elementuen gainean horiek izango duten eragina ebaluatu beharko da. Ebaluazio horrek barnean hartu beharko du teknikoki bideragarriak diren ordezeko aukeren analisia, eta behar beste justifikatu beharko du emakidaren beharra eta hartutako soluzioaren ingurumen-egokitasuna. Horrenbestez, KBEan babestu beharreko elementuen gainean eragin handirik sortzen ez dela bermatu beharko du. Edonola ere, KBEan babestu beharreko habitaten edo espezieen aldeko kontserbazio-egoera mantentzearekin edo berrezartzearekin bateragarriak diren emariak bermatuko dira.

8.5 Hirigintza-erregimenerako, hirigintza-erabileretarako eta eraikuntzarako prebentzio-erregimena

2. Apirilaren 15eko 1/2014 Lege Dekretuak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Natura babesten duen Legearen Testu Bateginaren 13. artikulua ezartzen duenaren indarrez, Natura 2000 Sareko lekuak naturagune babestuak dira. Lurralde-antolamenduko tresnek eta hiri-plangintzak inguruabar hori islatuko dute, eta KBEaren habitat naturalen eta bertan dauden basafaunako eta basafloorako espezieen kontserbazioa bermatuko dute. Horretarako, dokumentu honetan finkatzen diren kontserbazio-irizpideak, helburuak eta erregulazioak txertatuko dituzte.

8.6 Azpiegituretarako, ekipamendu handietarako eta erauzpen-jardueretarako prebentzio-erregimena

1. KBEaren barruan, saihestu egingo da azpiegituretarako (bideetakoak, trenbideetakoak, produkziokoak, energia-garraioak, etab.) eta ekipamendu handiak eraikitzea. Horretarako, haren mugetatik kanpo egongo diren trazadura-irtenbideak edo hautabidezko kokapena aztertuko dira haren mugetatik kanpo egongo diren hautabidezko trazadurako edo kokapeneko irtenbideak edo kokalekuak aztertuko dira.
2. Kontserbazio-helburu diren elementuetarako mugatzaileak izan daitezkeen industria-proiektuak saihestuko dira KBEan.

3. Apirilaren 15eko 1/2014 Lege Dekretuak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Babesten duen Legearen Testu Bateginaren 19.4. artikulua aplikatuta, KBEaren izendapenaren unean baimendu ez ziren erauzpen-jarduera berriak eta horien balizko zundaketak edo aurretiazko ikerketak ez dira bateragarritzat joko naturagune babestuaren kontserbazio-helburuekin. Bateraезintasan horretan funtsezkoa da giro horiekin lotzen diren espezie eta habitat mota gehienen hauskortasun edo urrakortasun handia eta horien mendekotasun funtzionala, baita batasunaren intereseko elementu horietako gehienen kontserbazio-egoera desegokia edo kaskarra ere.
4. KBEaren mugen barruan, debekatuta dago formazio geologikoetan biltegitutako gasa ustiatzea (fracking gisa ezagutzen dena), baita zundaketa-putzuak irekitzea ere.
5. Behar bezala ebaluatu ostean, KBEan baimentzen diren lurpeko azpiegitura linealak (kolektoreak, ur-eroanbideak, gasbideak, telekomunikazio-sareak, linea elektrikoak, eta abar) gaur egun dauden azpiegiturretan eta zortasunetan oinarrituko dira.
6. Teknikoki bideragarria denean, euste eta dorre elektrikoen kokapenak ez du eraginik izango Habitategi buruzko 92/43/EEE Direktibak kalifikatutako Batasunaren Intereseko edo Lehentasuneko Habitategiaren. Edonola ere, instalazio horiek talken eta elektrokuzioen aurkako gailuak izango dituzte, hegazti-faunaren hilkortasuna murrizteko.

8.7 Bestelako erabilera eta jardueretarako prebentzio-erregimena

1. KBEaren barruan taldeentzako kirol- edo aisia-jarduerak egiteko, kudeaketa-organoari aurretiaz jakinaraziko zaio hori, dagokion jardueraren arabera beharrezkoak diren baimenen kaltetan izan gabe.

9. FUNTSEZKOAK EDO KUDEAKETAREN HELBURU DIREN ELEMENTUAK

Aurreko atalean aditzera eman den bezalaxe, funtsezkoak edo kudeaketaren helburu diren elementuak dira “Urkabustaizko irla-hariztiak” KBEaren osotasun ekologikoa mantentzean eta leheneratzean eginkizun bereziki garrantzitsua betetzen duten basaespezieak, habitatak edo prozesu ekologikoak –zuzenean edo zeharka eragina baitute beste osagai ekologiko edo ekosistema-zerbitzu batzuen gainean–, betiere aldeko kontserbazio-egoeran kontserbatzeko neurri aktiboak, norabideak edo arauak behar dituztenak.

Funtsezkoak edo kudeaketaren helburu diren elementuen araberako hurbilketak aukera ematen du beharrezko neurriak hartzeko lekuan dauden elementu esanguratsuenak kontserbatzeko, eta erraztu egiten du ekosistemen osotasuna edo osasuna baino aiseago ebalua daitezkeen helburuen oinarrien gaineko kudeaketa egitea; baina, ahaztu gabe hori dela kudeaketaren azken helburua.

Hortaz, honako irizpide hauek hartu dira kontuan funtsezkoak edo kudeaketaren helburua diren elementuak hautatzeko:

- Eremu horretan bereziki adierazgarriak diren habitatak edo espezieak izatea, garrantzitsuak direnak Erkidegoko, Estatuko eta eskualdeko Natura 2000 Sarearen barnean, kontserbazioari begira; eta haien kontserbazio-egoera kaskarra izatea eta hura sustatze aldera kontserbazio-neurri aktiboak behar izatea.
- Giza erabileren mende dauden habitatak edo espezieak izatea, aldeko kontserbazio-egoera lortu edo mantenduko dutela ziurtatzeko arautu edo bultzatu beharrekoak.
- Beste habitat edo basaespezie batzuen gainean edo tokiaren osotasunaren segurtasun ekologikoaren gainean eragin positiboa izango duten habitatak edo espezieak izatea.
- KBEan agerpen adierazgarria duten habitat edo espezie horiei buruzko informazio teknikoan edo zientifikoan jasota egotea kontserbazio-egoera kaskarrean daudela edo neurri egokiak hartu ezean hala egon daitezkeela; edota habitat edo espezie horiek adierazle garrantzitsuak izatea talde taxonomikoen eta ekosistemen aberastasunari begira eta biodibertsitatearen gaineko presioari begira, eta horregatik monitorizazio-lanetan ahalegin berezi bat behar izatea.
- KBEaren osotasunaren egoera ekologiko egokirako interesgarriak diren prozesu ekologiko eta dinamikoekin lotzen diren habitatak edo horien multzoak izatea (esate baterako, espazioaren garrantzia konektagarritasun ekologikorako, akuiferoak leheneratzeko edo paisaiaren dibertsifikaziorako).

9.1 Habitatak

FUNTSEZKO ELEMENTUA	JUSTIFIKAZIOA
Konektagarritasuna eta irla-basoen beste prozesu ekologiko batzuk	<p>Irla-basoen bakartze-maila murrizteko beharra, KBEaren osotasunaren egoera ekologiko egokiari eusteko.</p> <p>Irla-basoak EAeko eta Arabako Lurralde Historikoko korridore ekologikoen sarean interesa duten korridore zabalago batzuen parte dira.</p> <p>Irla-basoek garrantzi ekologiko eta paisajistiko handia dute. Izan ere, dibertsitate paisajistikoan laguntzen dute; animalia-espezieentzat babeslekuak dira; eta landare-propaguluen gordailua eta gene-gordailua dira.</p>
<i>Quercus robur</i> espeziearen harizti mesotrofo azpiatlantikoak (EBko 9160 kodea)	<p>Habitategi buruzko Direktibaren I. eranskineko habitata.</p> <p>Habitatak agerpen adierazgarria du espazioan, eta batzuetan kontserbazio-egoera kaskarrean dago.</p> <p>Haranaren hondoetan harizti mesotrofo gutxi eta beste zuhaitz hostoerorkor gutxi agertzen denez gero, habitat horrek garrantzi handia du zenbait fauna-espezieentzat atsedean hartzeko, ugaltzeko eta babesteko eremu gisa eta landare-propaguluen gordailu eta gene-gordailu gisa.</p> <p>Funtsezko elementu gisa hautatu den Bechstein saguzarraren berezko habitatak dira hariztiak eta beste zuhaitz hostoerorkorreko zuhaitziak, eta horien kudeaketa egokia lagungarria izango da babes bereziko erregimeneko elementuen kontserbaziorako.</p>
Ameztiak (EBko 9230 kodea)	<p>Habitategi buruzko Direktibaren I. eranskineko habitata.</p> <p>Haranaren hondoetan amezti gutxi eta beste zuhaitz hostoerorkor gutxi agertzen denez gero, habitat horrek garrantzi handia du zenbait fauna-espezieentzat atsedean hartzeko, ugaltzeko eta babesteko eremu gisa eta landare-propaguluen gordailu eta gene-gordailu gisa.</p> <p>Funtsezko elementu gisa hautatu den Bechstein saguzarraren berezko habitatak dira ameztiak eta beste zuhaitz hostoerorkorreko zuhaitziak, eta horien kudeaketa egokia lagungarria izango da babes bereziko erregimeneko elementuen kontserbaziorako.</p>
Pagadi azidofiloak (EBko 9120 kodea)	<p>Habitategi buruzko Direktibaren I. eranskineko habitata.</p> <p>Haranaren hondoetan pagadi gutxi eta beste zuhaitz hostoerorkor gutxi agertzen denez gero, habitat horrek garrantzi handia du zenbait fauna-espezieentzat atsedean hartzeko, ugaltzeko eta babesteko eremu gisa eta landare-propaguluen gordailu eta gene-gordailu gisa.</p> <p>Funtsezko elementu gisa hautatu den Bechstein saguzarraren berezko habitatak dira pagadiak eta beste zuhaitz hostoerorkorreko zuhaitziak, eta horien kudeaketa egokia lagungarria izango da babes bereziko erregimeneko elementuen kontserbaziorako.</p>
Erkameztiak (EBko 9240 kodea)	<p>Habitategi buruzko Direktibaren I. eranskineko habitata.</p> <p>Haranaren hondoetan erkamezti gutxi eta beste zuhaitz hostoerorkor gutxi agertzen denez gero, habitat horrek garrantzi handia du zenbait fauna-espezieentzat atsedean hartzeko, ugaltzeko eta babesteko eremu gisa eta landare-propaguluen gordailu eta gene-gordailu gisa.</p>

9.2 Espezieak

FUNTSEZKO ELEMENTUA	JUSTIFIKAZIOA
<p>Baso-igel jauzkaria (<i>Rana dalmatina</i>)</p>	<p>Habitatei buruzko Direktibaren IV. eranskineko espeziea, EAEn eskualde-interesa duena eta "kaltebera" (K) gisa katalogatua Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrendan.</p> <p>Putzuak eta zingira-landaredi ugari duten harizti atlantikoko eremuetako berezko espeziea –eremu horiek arrautzak jartzeko baldintza egokiak eskaintzen dizkio–. KBEan agertzen dela egiaztatu da. Amurrio eta Urkabustaizko goi-eremuetako baso-igel jauzkariaren populazioak dira probintziako eta Iberiar Penintsularen osotasuneko populaziorik adierazgarrienak.</p>
<p>Bechstein saguzarra (<i>Myotis bechsteinii</i>)</p>	<p>Habitatei buruzko Direktibaren IV. eranskineko espeziea, EAEn eskualde-interesa duena eta "galzorian" (GA) gisa katalogatua Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrendan.</p> <p>Hariztietako, pagadietako eta bestelako baso hostoerorkorretako berezko espeziea, betiere ondo egituratuta badaude eta baso helduen ezaugarriak badituzte –zuhaitz handiak eta zuloguneak dituztenak–.</p> <p>Espezie hori oso urria da Euskal Autonomia Erkidegoan eta populazioa ezaguna du KBEan.</p> <p>Baso hostoerorkorren kalitate ekologikoaren (zuhaitz helduak, zuloguneak dituztenak, eta abar) espezie bioadierazlea.</p>

10. FUNTSEZKO ELEMENTUETARAKO EDO KUDEAKETAREN XEDE DIRENETARAKO HELBURUAK ETA ERREGULAZIOAK

Funtsezkoak edo kudeaketaren helburu diren elementuetako bakoitzerako, hark gaur egun duen kontserbazio-egoera zehazten da. «Habitat baten kontserbazio-egoera» da dagokion habitat naturalaren gainean eta bertan finkatutako ohiko espezieen gainean diharduten eraginen multzoa. Horrek, epe luzean, eragina izan dezake haien banaketa naturalean, egituran eta eginkizunetan, baita bertako ohiko espezieen biziraupenean ere. Habitat natural baten «kontserbazio-egoera» «aldekotzat» hartzen da haren banaketa naturaleko eremua eta eremu horretan bildutako azalerak egonkorrak direnean edo zabaltzen direnean, hura epe luzera mantentzeko beharrezkotzat jotzen diren berariazko egitura eta eginkizunak daudenean, horiek etorkizun aurreikusgarri batean irauteko aukera dutenean eta bertako ohiko espezieen kontserbazio-egoera aldekoa denean. Era berean, «espezie baten kontserbazio-egoera» da haren gainean diharduten eraginen multzoa, baldin eta epe luzera haren populazioen banaketan eta garrantzian eragina izan badezakete. Eta espezie baten «kontserbazio-egoera» «aldekotzat» jotzen da haren populazioei buruzko datuek adierazten dutenean dagokion habitatean epe luzera bere agerpena arriskuan ez dagoela. Habitatak horretarako behar adinako hedadura izan behar du, haren banaketa naturaleko eremua ez murrizteko eta etorkizun aurreikusgarri batean murrizteko arriskurik ez egoteko moduan.

Kontserbazio-egoera egokia lortzea da Batasunaren intereseko espezie edo habitat mota guztiek lortu beharreko azken helburua. Egoera horretan habitat mota bakoitzak eta espezie bakoitzak aurrera egingo du kalitatean zein hedaduran, eta etorkizunean aurrera egiten jarraitzeko aukera onak izango ditu.

Posible izan den guztietan, Habitategi buruzko Direktibaren (17. artikulua) aplikazio-txostena lantzeko azalpen-dokumentuan gomendatutako parametro kuantitatiboak erabili dira. Hartara, etorkizuneko txostenak lantzeko informazio estandarizatua eta konparagarria transmititu nahi da, eta Estatuko eta Batasuneko oinarrizko legeria bete nahi da. Horretarako, kontserbazio-egoeraren deskribapen testualaz gainera, funtsezko elementutzat hautatutako espezie eta habitat natural guztien kontserbazio-egoerari buruzko fitxen eranskina gehitu da. Deskribapen testualean jasotako taulak fitxa horien laburpena dira.

Gomendagarria da erreferentziazko balio argiak eta kuantifikagarriak finkatzea aldeko kontserbazio-egoerarako. Beste dokumenturik ez dagoen bitartean, erreferentziazko balio horiek Landa eta Itsas Ingurumen Ministerioak 2009. urtean argitaratutako dokumentu honen arabera zehaztuko dira: “Bases ecológicas preliminares para la conservación de los tipos de hábitat de interés comunitario en España” (Espainian dauden Batasunaren intereseko habitat motak kontserbatzeko aurretiazko oinarri ekologikoak). Gaur egun, Urkabustaizen kontserbazioaren xede diren habitat mota batzuk ebaluatzen laguntzeko, Baso Inbentarioaren datuak daude. Horiek ikuspegi orokorra ematen dute Arabako

Lurraldeko baso eta zuhaitz-formazioetako berriazko osaeraren eta banaketa diametrikoaren inguruan. Inbentarioan partzela iraunkorren sare bat jasotzen da. Horrek aukera ematen du lagindutako parametroen bilakaerari buruzko jarraipena egiteko. Gainera, haren azken berrikuspenean, biodibertsitate-adierazle batzuk gehitu dira; hala nola: zuhaitz zaharrak eta beste batzuk. Hala ere, Habitategi buruzko Direktibaren arabera kontserbazio-egoera ebaluatzeko beharrezkoak diren beste eskakizun batzuk ez ditu jasotzen. Bestalde, kasu gehienetan, dagoen informazioa ez da behar adinakoa Habitategi buruzko Direktibaren informazio-betebeharrei erantzuteko. Horregatik, Planaren lehen neurrietako bat izango da Arabako baso-inbentarioko partzelen sare iraunkorra osatzea, berori behar adinakotzat jotzen ez bada, eta habitat zuhaitzunen kontserbazio-egoerari buruzko ebaluazio eta jarraipen egokia egiteko Europako Batzordeak beharrezkotzat jo dituen parametroak gehitzea.

KBEan dauden habitat naturalen kasuan, lehen urratsa eman da habitataren kontserbazio-egoera baloratzeko. Horretarako, banaketa-eremuaren kartografia prestatu da.

Horrelako kasuetan, kudeaketa-tresnaren helburua da informazio-gabeziak zehaztea eta kontserbazio-neurri egokiak ezartzea. Hartara, zehaztasun handiagoaz finkatuko da egungo kontserbazio-egoera eta funtsezko elementuen kontserbazio-egoera egokia.

Eskuragarri dagoen informazioaren bidez, funtsezko elementu bakoitzaren egungo kontserbazio-egoera zehaztu ondoren, epe luzerako **helburu orokor** bat edo gehiago proposatzen da, funtsezkoak diren edo kudeaketaren xede diren elementu horietako bakoitzerako aldeko kontserbazio-egoera lortu ahal izateko. Helburu orokorrak ezin izango dira beti lortu kudeaketa-dokumentuan biltzen diren kontserbazio-neurriak aplikatzeko aldirian. Sarritan, sistema naturalen erantzun- eta bilakaera-denbora oso motela da, edota abiapuntuko egoera narriatuegia dago. Horregatik, berehalako neurriak hartu arren, kudeaketa-tresna gauzatzeko aldirian zehar, nahi den azken egoeranzko aurrerapen partzialak besterik ezin dira lortu.

Ondoren deskribatuko dira helburu orokorretan funtsezko elementuek ezarritako kontserbazio-egoera lortzea edo mantentzea, kasuak kasu, eragotz edo lagun dezaketen eta gaur egungo kontserbazio-egoera baldintzatzen duten faktoreak. Faktore baldintzatzaile horietako batzuek kudeaketa-dokumentuaren esparrua eta kudeatzaileen eskumenen eta erabakien esparrua gainditzeko dute; beraz, esparru horrez aparte landu beharko dira. Nolanahi ere, hori hala denean, eta aurreikusitako helburu orokorrak lortzeko aukera arras baldintza dezaketenez gero, atal honetan identifikatuko dira.

Eta, helburu orokor bakoitzerako (kudeaketaren azken helburutzat ulertuta), eta, lehen esan bezala, zenbaitetan kudeaketa-dokumentuaren denboraldian ezarritako sei urteetan lortu ezin daitezkeenez gero, zehaztu egiten dira denboraldi horretan erdietsi beharreko **berriazko helburuak**, aldeko kontserbazio-egoeran ahalik eta denbora laburrenean aurrera egiteko edo horiek lortzeko, eskuragarri dauden baliabideak kontuan izanda.

Edonola ere, funtsezkoak edo kudeaketaren helburu diren elementuen arabera hurbilketak aukera ematen du beharrezko neurriak hartzeko lekuan dauden elementu esanguratsuenak kontserbazioa begira, eta erraztu egiten du aise ebalua daitezkeen helburuen oinarrien gaineko kudeaketa egitea. Hala ere, kontuan izan beharko da beti kudeaketa-jardunen dokumentu honen arabera hartzen diren neurrien azken helburua dela lekuaren osotasun ekologikoa babestea, Euskal Autonomia Erkidegoko eremu babestuen sarearekiko koherentziari ekarpena egitea, eta ekosistemetako ingurumen-ondasunak eta zerbitzuak hornitzea.

Natura 2000 sareko helburuak betetzeko xedez artikulatzen dira kontserbazio-neurriak, eta organo eskudunek kontserbazio-neurri horiek kontuan izan beharko dituzte plan eta proiektu publikoak lantzean eta leku horietan eragina izango duten erabilerak eta jarduerak baimentzean.

Era berean, espazio horietan kontserbazio- eta leheneratze-jardunak garatzen dituzten administrazio publikoek eta eragileek babes-norabide eta -arau horiek izango dituzte kontuan, baita Urkabustaizko KBEan proposatzen diren neurriak ere, haien esku hartzeko lehentasunak ezartzeko garaian.

10.1 Basoak

Kontserbazio-egoera

Baso-habitategen "Urkabustaizko irla-hariztiak" KBEaren azaleraren % 88,6 hartzen dute. KBEan dauden baso-habitatetarako gaur egungo banaketa-eremuaren kartografia landu da, baina ez dago baso-habitat horien kontserbazio-egoera behar besteko zehaztasunez ebaluatzeko aukera emango digun bestelako adierazle kuantitatiborik. Hori dela eta, habitaten mapa abiapuntu izanik kalkulatu azalerari buruzko datuez gain, ez dago basoen kontserbazio-egoera ebaluatzea ahalbidetuko digun datu kuantitatiborik, hala nola zuhaitzen adinen eta egur hilaren egitura, ohiko espezieen identifikazioa eta ebaluazioa (batez ere landareena, anfibioena, hegaztiarena, ugaztunena eta ornogabeena) edo hartutako azaleraren bilakaera. Haatik, landa-lanean basoen kontserbazio-egoeraren gainean eragina duten hainbat alderdi oharteman da.

Lehenik, alde negatibo gisa nabarmendu behar da, KBEaren izenak berak adierazten duen bezalaxe, Urkabustaizko irla-hariztiarako basoak bakartuta daudela larre eta labore-lurren erdian. Godamo mendiko eta Zuiako haraneko sektorearen hego-mendebaldeko basoek soilik dute beste baso batzuekin jarraipena. Gainera, oro har, baso horiek ere ez dute orlako edo trantsizioko landare-zerrenda naturalik basoen eta espazio irekien artean (ekotonoak), bai, ordea, sega-belardiak inguratzen dituzten eta KBEaren basoetara iristen diren palaxu txiki batzuk. Baso-ekosistema horien kontserbazioan eragin negatiboa duen beste alderdi bat AP-68 autobidea da; izatez, ekialdetik mendebaldera zeharkatzen du Godamo mendiko eta Zuiako haraneko sektorea, sektore horretako baso-masak zatikatuta. Baso horietan hildako egurra urria da eta leheneratze naturalak ona ematen du (zuhaitz-landareak eta zuhaitz

gazteak oharteman dira), Garaiko sektorean izan ezik eta Godamo mendiko eta Zuiako haraneko sektorearen zenbait puntutan izan ezik –abeltzaintza-jarduerak eraginda–.

- Pagadi azidofiloak (EBko 9120 kodea)

Pagadi azidofiloak “Urkabustaizko irla-hariztiak” KBEaren 3. sektorean soilik agertzen dira, eta bertan 56,8 ha inguruko azalera hartzen dute. Habitat horren bi gune bereizi dira. Lehen guneak 31 ha baino zertxobait gehiago du eta bertan habitata garbia da. Lehenengoaren ondoan dagoen bigarren guneak 127 ha baino zertxobait gehiago du; ameztiak (EBko 9230 kodea) gunearen % 80 hartzen dute, eta gainerakoa (25 ha inguru) pagadi azidofiloek hartzen dute.

Pagadi azidofiloen gaur egungo azalera landaredi potentzialarekin nahiko bat datozen arren, pagadi azidofilo horiek bakartu samartuta daude; izatez, KBEaren mugez kanpo, pagadiak gune txiki eta nolabait bakartu eta urrunetan agertzen dira: 200 metro inguruko distantziara, hego-ekialde norabidean, Baia ibaiaren ezker aldean, eta iparraldetik eta ipar-ekialdetik kilometro batetik gorako distantzian Ametzagan, eta Beluntza iparraldean.

Ez dago habitat horren kontserbazio-egoera zehaztea ahalbidetuko duen informazio kuantitatiborik, ezta “Urkabustaizko irla-hariztiak” KBEan habitat horrek duen joera zehazteko aukera emango duen informaziorik ere. Kontserbazio-egoera desegokitzat jo da, haren egituraren eta funtzioen ondorioz. Landa-lanean ez da dimentsio bikaineko zuhaitzik oharteman, baina badago eite handiko pago helduen estaldura ia jarraitua; zuhaitz-landareak eta pago gazteak oharteman dira. Oihanpea pobrea bada ere, mota horretako basoen espezie bereizgarriak ditu, eta horien artean gorostia (*Ilex aquifolium*) nabarmentzen da. Ez dago hektareako egur hilaren bolumenari buruzko daturik, baina adar eta zuhaitz eroriak ikusi dira, baita deskonposizio-egoera aurreratuan dauden motzondo batzuk ere.

Habitat horren baso-ustiapenei buruzko daturik ez dugu; haatik, ez da berriki moztutako eremurik oharteman, ezta baso-lanik ere. Abornikano alboko zenbait puntutan abeltzaintza-jarduera trinkoa hauteman da.

Ez da pagadi horien gaineko mehatxurik edo presiorik hauteman. Nolanahi ere, AP-68 autobidea hurbil egoteak baldintza dezake pagadi horietan berezkoak diren fauna-espezie sentiberenak agertzea. Ez dakigu baso-kudeaketak zer inpaktu izan dezakeen pagadien etorkizuneko egituraren eta konposizioaren gainean. Abornikano inguruko zenbait puntutan, abeltzaintzaren nolabaiteko presioa hautematen da oihanpean (dehesa itxurako basoa).

Pagadi azidofiloak: <i>desegokia</i>			
Azalera	Egitura	Eginkizunak	Etorkizun-itxaropenak
<i>Aldekoa</i>	<i>Desegokia</i>	<i>Desegokia</i>	<i>Aldekoa</i>

- *Quercus robur* espeziearen harizti mesotrofo azpiatlantikoak (EBko 9160 kodea)

Quercus robur espezieko harizti horrek KBEan 76,6 ha-ko azalera hartzen du, hau da, KBEaren % 27,7, eta Dehesako eta Garaiko sektoreen ia % 100. Nabarmendu behar da hau izango litzatekeela azken bi sektore horietako baso potentziala (Oiardo herriko hego-mendebaldean), baita Godamo mendiko eta Zuiako haraneko sektorearen iparraldeko eta hegoaldeko ertzen inguruko baso potentziala ere (Izarra herriaren hego-mendebaldean eta Abornikano eta Lukiano ingurunean), nahiz eta gaur egun larreek eta labore-lurrek, batez ere, hartuta dauden.

Ez dago habitat honen kontserbazio-egoera zehaztea ahalbidetuko duen informazio kuantitatiborik, ezta “Urkabustaizko irla-hariztiak” KBEan duen joera zehazteko aukera emango duen informaziorik ere. Hala ere, habitat horrek izan duen azalera murrizketa handi horrez gain, aintzat hartu da Dehesako sektorean kontserbazio-egoera *desegokia*/txarra dela eta Garaiko sektorean *desegokia*/kaskarra dela, batik bat aziendak egindako presioaren ondorioz. Godamo mendiko eta Zuiako haraneko sektorean, berriz, kontserbazio-egoera ona/aldekoa dela adieraz daiteke. Aziendaren presio horrek belar- eta zuhaixka-landarearen degradazioa eta banalizazioa eragin du; hartara, espezie nitrofiloak eta erruderalak ageri dira, eta harizti horietako espezie bereizgarriak desagertu edo bakandu dira.

Baso-konposizioa eta -egitura desberdina da hiru sektoreetan. Oiardotik hurbil dauden bi sektoreetan, aziendaren eraginaz gain, hariztiak azalera nahiko murrizta dute eta mazela leun batean kokatuta daude; hori dela eta, lurzoruak ez daude hain garatuta, eta hezetasan baldintzak gorabeheratsuagoak dira. Godamo mendiko eta Zuiako haraneko sektorean dimentsio ertaina du, haranaren hondoan kokatzen da, eta, geruza freatikoa lur gainetik hurbil dagoenez gero, maiz sortzen dira putzuak. Oiardotik hurbil dauden bi sektoreetan haritz kanduduna (*Quercus robur*) da nagusi, baina haritz kandugabea (*Quercus petraea*) eta erkameztia (*Quercus faginea*) ere agertzen dira. Garaiko sektorearen behealdean ametza (*Quercus pirenaica*) eta pagoa (*Fagus sylvatica*) dira nagusi, segur aski substratuaren azidifikazioak lagunduta. Datu zehatzik ez badugu ere, oharteman da zuhaitzen adin-egitura adin ertainerantz egiten duela, eta dimentsio handiko zuhaitz gutxi eta zuhaitz gazte gutxi dagoela; gainera, lurzoruan adar eta enbor hilak ikusten dira, baina oso urriak dira zutik dauden zuhaitz hilak, halakorik badago.

Godamo mendiko eta Zuiako haraneko sektorea aztertu da *Integridad ecológica, diversidad estructural y patrones de regeneración en robledales semi-naturales de la CAPV* (ERROTUZ,

2006) (Integritate ekologikoa, egitura-aniztasuna eta leheneratze-patroiak EAEko harizti erdinaturaletan). Hori dela eta, basoaren egiturari eta konposizioari buruzko datu zehatzak ditugu. Godamo mendiko haritz kanduduneko basoa Euskal Autonomia Erkidegoko baso-masarik zaharrenetako bat dela uste da, gehienez 90 cm-ko diametroekin eta 100 urte baino askoz ere adin handiagoekin. Zuhaitz-masak 694 oin/ha-ko dentsitatea du (dentsitate txikikoa beste baso batzuekin alderatuta), eta 130 eta 250 urte arteko haritz kandudunak dira nagusi; haatik, lizarra, astigarra eta urkia ere agertzen dira –ez dira haritzaren adinera eta diametroa iristen (0 eta 30 cm arteko diametroa)–. Azken horiek leheneratze-estratu oparoa osatzen dute, eta bertan ia ez dira haritzak errekrutatu (% 9 besterik ez dira); hala ere, oihanpearen metro batetik beherako estratuan haritzak errekrutatzen dira, leheneratzearen % 89ra arte. Egitura-aniztasunari dagokionez, zutik dauden zuhaitz hilen dentsitate txikia nabarmendu behar da (<40 cm-ko diametroko 66 oin/ha, eta >40 cm-ko diametroko 33 oin/ha). Segur aski, haritz-oinen eta horiekin lotzen diren espezieen aldi behingo mozketen eta baso-soiltzeen ondorio dira. Oso deskonposizio aurreratuan dagoen egurraren agerpena handi samarra da, 45,5 m³/ha –basorik zaharreneen balio bereizgarria–. Haritzen hazkunde-eratzunen analisiak erakusten digu gaur egungo egoerarekin zerikusik ez duen zuhaitz-masa irekiago bateko baldintzetan finkatu ziren zuhaitzak direla, eta horiekin batera, esate baterako, astigarrak eta lizarrak ezarri zirela –horiek osatzen dute gaur egungo leheneratze-estrata–. Horrenbestez, zenbait baldintza ekologikok edo kudeaketa-erregimenek denboraldi luzeetan haritza ia ez errekrutatzea eragin dezakete.

Ez dugu baso-aprobetxamenduei buruzko daturik, nahiz eta Godamo mendiko eta Zuiako haraneko sektorean basoa soilduta agertzen den suteen aurkako mozketen ondorioz.

Harizti horiek jasan behar duten mehatxu eta presiorik nagusienak dira abeltzaintza (garrantzi handikoa Oiardo inguruko bi sektoreetan), baso-masen azalera urria, bakartuta egotea, haritzaren leheneratze urria eta baso-lanak.

<i>Quercus robur</i> espeziearen harizti mesotrofo azpiatlantikoak: <i>desegokia</i>			
Azalera	Egitura	Eginkizunak	Etorkizun-itxaropenak
<i>Desegokia</i>	<i>Desegokia</i>	<i>Desegokia</i>	<i>Aldekoa</i>

- Ameztiak (EBko 9230 kodea)

Ameztiak dira KBEan estaldurarik handiena duen baso-habitata. Oro har, 103,5 ha-ko azalera hartzen du, guztia Godamo mendiko eta Zuiako haraneko sektorean; zehazki, sektore horren hegoaldeko erdian gune handi bat osatzen du eta ekialdeko erdian bi gune txiki ageri dira. Habitat horrek KBEaren % 37,4 estaltzen du, hau da, gutxi gorabehera habitat horren azalera

potentziala. “Urkabustaizko irla-hariztiak” KBEak habitat horren % 1,6 ekartzen dio Euskal Autonomia Erkidegoko Natura 2000 sareari.

Beste baso-habitatekin gertatzen zen bezalaxe, ez dugu habitat horren kontserbazio-egoera zehaztea ahalbidetuko digun informaziorik, ezta KBEaren joera zehazteko aukera emango digun informaziorik ere. Kontserbazio-egoera desegokitzat jotzen da, batik bat baso horien egiturari erreparatuta: zuhaitzek adin ertainera jotzen dute, eta urriak dira dimentsio handiko zuhaitzak eta zuhaitz gazteak; lurzoruan adar eta enbor hilak ikusten dira, baina oso urriak dira zutik dauden zuhaitz hilak, halakorik badago.

Ez dugu baso-aprobetxamenduei buruzko daturik, baina ameztien baso-masen barruan soildutako gune batzuk oharteman dira (txilardiz edo antzinako baso-ustiapen batzuen soilgunez osatuta). Abornikano alboko zenbait puntutan abeltzaintza-jarduera trinkoa hauteman da, eta nolabaiteko dehesa itxurako baso-masak ikusten dira.

Ameztiak jasan beharreko mehatxu eta presio nagusiak dira puntu jakin batzuetan garatzen den abeltzaintza eta baso-jarduera –azken horren datu zehatzik ez badugu ere–.

Ameztiak: <i>desegokia</i>			
Azalera	Egitura	Eginkizunak	Etorkizun-itxaropenak
<i>Aldekoa</i>	<i>Desegokia</i>	<i>Desegokia</i>	<i>Aldekoa</i>

- Erkameztiak (EBko 9240 kodea)

Erkameztiak oso azalera txikia hartzen dute, 0,2 ha inguru (KBEaren azaleraren % 0,1etik behera), eta Garai sektoreko hegoaldeko muturrean soilik agertzen dira, Oiardoren hegoekialdean. *Quercus robur* espezieko harizti mesotrofo azpiatlantikoen alboan daude, baina hezetasun txikiagoko lurzoruak dituzten eremuetan.

Ez dago habitat horren kontserbazio-egoera zehaztea ahalbidetuko duen informazio kuantitatiborik, ezta KBEan duen joera zehazteko aukera emango duen informaziorik ere. Zuhaitzek tarteko adinera jotzen dute, eta dimentsio handiko zuhaitz eta zuhaitz gazte gutxi dago; zuhaitzen dentsitatea txikia da, eta basoa nahiko soilduta dago; ez da zutik dagoen zuhaitz hilik oharteman; oihanpea zuhaixka-formazioez eta landaredi nitrofiloez osatuta dago, aziendaren agerpenaren ondorioz eta, segur aski, egin diren baso-soilketen ondorioz. Kontserbazio-egoera txartzat jotzen da, formazio horren azalera urriaren eta egitura eta eginkizun kaskarren eraginez.

Erkameztiak jasan beharreko mehatxu eta presio nagusiak dira puntu jakin batzuetan

garatzen den abeltzaintza eta baso-jarduera –azken horren datu zehatzik ez badugu ere–.

Erkameztiak: txarra			
Azalera	Egitura	Eginkizunak	Etorkizun-itxaropenak
<i>Desegokia</i>	<i>Txarra</i>	<i>Txarra</i>	<i>Desegokia</i>

Baldintzatzaileak

KBEaren azaleraren % 84,7 (234,4 ha), tokiko entitateei dagozkien herri-onurako mendiei dagokie. Horrek baso horietako zatirik handienaren kudeaketa erraztu beharko luke.

Ez dago KBEaren baso horien kontserbazio-egoerari buruzko ebaluazio kuantitatibo zehatzik. Horrez gain, duela gutxira arte, basoen jarraipena egiteko askotariko protokoloak zeuden, baina horiek ez ziren egokiak basoak ekosistemaren eta biodibertsitatearen ikuspegitik ebaluatzeko; hortaz, zaila zen baso naturalen kontserbazio-egoera ezartzea indize fidagarrien eta konparagarrien bidez eta denboraldi laburretako aldaketekiko sentiberen bidez. Bestalde, adierazleen emaitzak ez dira bateragarriak izaten, ezta beste espazio batzuei gehigarriak ere, hainbat eskala aztertu ahal izateko. Europako Batzordeak 92/43/EEE Direktibaren 17. artikulua aplikatzeko prestatutako oharren eta norabideen dokumentuan oinarrituta, 2009an hainbat egilek argitara eman zuten “*Bases ecológicas preliminares para la conservación de los tipos de hábitat de interés comunitario en España*” (Espainian dauden Batasunaren intereseko habitat motak kontserbatzeko aurretiazko oinarri ekologikoak) azterlana. Argitalpen horrek baso-habitat bakoitzaren kontserbazio-egoera ebaluatzeko protokoloak hartzen ditu barnean. Egileek proposatzen dute: (1) okupatutako azaleraren zehaztapena eta jarraipena; (2) ohikoak diren espezieen identifikazioa eta ebaluazioa (batez ere landareena, anfibioena, hegaztiena, ugaztunena eta ornogabeena); eta (3) egituraren eta eginkizunaren ebaluazioa, betiere egur hila kuantifikatuta, basoaren egitura aztertuta, belarjaletasuna kuantifikatuta eta basoaren zatiketa zehaztuta. Horrez gain, metodologia bateratzen dutenez gero, emaitzak hainbat espazioren artean konparagarriak izan daitezke. Ebaluazio-protokolo horren aplikazioak laguntza erabakigarria eskaini beharko luke habitat horiek aldeko kontserbazio-egoera batean mantentzeko.

Basoen egitura eta konposizioa oso baldintzatuta daude izan den abeltzaintzako eta baso-lanetako jarduerarekin. Azken hamarkada hauetan jarduera horiek nabarmen murriztu badira ere, “Urkabustaizko irla-hariztiak” KBEaren zenbait eremutan aziendak presioa handia egin du, batik bat Dehesako sektorean, eta horrek guztiz degradatu du oihanpea eta arras zaildu du zuhaitzia birsortzea.

Basoak kudeatzeko helburuak sistema helduak lortzera bideratu beharko lirateke, betiere bateragarri eginez, batetik, baso-ustiapena eta abeltzaintza eta, bestetik, ahalik eta prozesu natural gehien mantentzea. Horrenbestez, egituraren konplexutasuna gehitu beharko da (adinen eta tamainen mosaikoa), baso espezieen dibertsitatea eta basoaren ertzetan ekotonoen agerpena sustatu beharko da, eta hilik dauden zuhaitzak eta egurra zutik edo lurrean mantendu beharko da.

2007-2013ko Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako Programak baso-ingurunearen aldeko laguntzak eskaintzen ditu; haatik, nabarmendu behar da onuradunak bere gain hartu duela hilik dagoen egurra edo oin helduak erauzteko lanak zazpi urtez ez egiteko konpromisoa –nolanahi ere, aldi hori nahiko laburra da basoen egitura eta konposizioa hobetzeko–. Ildo horretan, Aiako Harria BILa kontserbatzeko eta leheneratzeko LIFE proiektuaren azken txostenaren ondorioetan aditzera eman denez, pagadi azidofiloetan egitura-konplexutasuna maximizatzeko baso-tratamenduetan emaitzak lortu nahi badira, nahikoa dira 3 urte ornogabeen komunitatean erantzun garbia eragiteko (ugaritasunari dagokionez ez ezik, berariazko agerpenean ere bai), ez ordea ornodunen komunitatean erantzun garbia eragiteko.

Baso horietan, ia egur guztia basoan bertan desegingo litzateke, baldin eta suteek eta gizakiek jardungo ez balute; eta, hartara, sare trofiko konplexua egongo litzateke. Hilik dagoen egurra garrantzi handikoa da organismo multzo askorentzat, batez ere onddoentzat, briofitoentzat, likenentzat, ornogabeentzat, anfibioentzat, hegaztientzat eta ugaztunentzat. KBEaren hiru sektoreetan, lurrean hilik dauden enborrak eta adarrak oharteman dira, baina ia ez dago zuhaitz hilik zutik, halakorik baldin badago, eta hori faktore mugatzailea da zenbait organismo interesgarrirentzat.

Baso-masa horiek bakartuta egotea nabarmentzekoa da, batik bat Oiardo alboko sektoreetan, eta, oro har, ez dago orla-landarediko zerrenda naturalik edota basoen eta espazio irekien arteko (ekotonoak) trantsizio-landarediko zerrenda naturalik. Horrek ertz-efektua eragozten du. Horrenbestez, areagotu egiten da KBEaren basoetara iristen diren sega-belardien inguruko palaxuen garrantzia, nahiz eta palaxu horiek KBEaren mugaz kanpo geratzen diren. AP-68 autobideak ere baldintzatu egiten du Godamo mendiko eta Zuiako haraneko sektoreko basoen jarraitutasuna; izan ere, bide horrek ez du autobidearen bi aldean arteko joan-etorriak erraztuko duen faunarentzako pasabide egokirik.

HELBURUAK ETA ERREGULAZIOAK

<p>1. helburu orokorra</p>	<p>Basoen gaur egungo azalerari eustea eta baso-kudeaketa egokia ezartzea, hau da, basoaren aldeko kontserbazio-egoerari dagokion naturaltasun-maila eta egitura-konplexutasuneko maila lortzearekin bateragarria izango dena.</p>
-----------------------------------	---

<p>1.1. berariazko helburua</p>	<p>Bertako basoak kontserbatzea, haien naturaltasuna eta egitura-konplexutasuna hobetuta.</p>
<p>Erregulazioak</p>	<ol style="list-style-type: none"> 1. “Urkabustaizko irla-hariztiak” KBEan baso-habitaten kontserbazio-egoeraren jarraipena egiteko plana ezarri beharko da, eta plan horrek EAEko gainerako baso-habitatekin komuna edo konparagarria izan beharko du. Honako alderdi hauek, gutxienez, hartu beharko ditu barnean: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Baso-masaren azaleraren eta zatiketa-mailaren bilakaera. ▪ Nagusi diren zuhaitz-espezieen dentsitatea eta oinaldeko eremua. ▪ Zuhaitzen adinaren banaketa eta dentsitatea. ▪ Zuhaitz-masako eta zuhaixka- eta belar-estratuetako bigarren mailako espezieen dibertsitatea. ▪ Zutik edo lurzoruan dauden egur hil motak eta kantitatea. ▪ Zuloguneen dentsitatea. ▪ Soilguneen dentsitatea. 2. “Urkabustaizko irla-hariztiak” KBEko basoen egituraren eta eginkizunaren kontserbazio globalaren egoera edo baso horien naturaltasun-indizea zehazteko protokoloa definitu beharko da, eta protokolo horrek EAEko gainerako baso-habitatekin komuna edo konparagarria izan beharko du. Honako alderdi hauek gutxienez izan beharko ditu kontuan: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Zuhaitzen osasun-egoera. ▪ Baso-hegaztien egoera eta joera (batez ere pizidoena eta beste espezie troglodita batzuen). ▪ Ornogabe saproxilikoaren komunitatearen dibertsitatea eta ugaritasuna. ▪ Baso-kiropteroen dibertsitatea eta ugaritasuna. ▪ Belarjaletasunaren intentsitatea eta baso-kudeaketa. 3. Debekatuta dago KBEko basoen transformazio oro, zuhaitz exotikoak landatzeagatik izan, ureztatze-baltsak eraikitzeke lur-eremuak hartzeagatik izan, bideak edo pistak eraikitzeagatik izan, eraikuntzengatik izan, erauzpen-jarduerengatik izan edo bestelako edozein jardueragatik izan. Halabeharrezko arrazoiengatik erabilera-aldaketa hori baimentzen bada, basoetan galdutako azalera eta kalitatea konpentsatu beharko da. Horretarako, ikuspegi ekologikotik kuantitatiboki eta

kualitatiboki baliokidea izango den azalera txertatu beharko zaio KBEari. Arau horretatik kanpo geratzen da Larrazketa eta Gillerna lotzen dituen pistaren egokitzapena –AP-68 autobidearekiko paralelo bideratzen da pista–.

4. Debehatuta dago bertako espezieen basoetan edozein zuhaitz-mozketa edo baso-soilketa egitea Kudeaketa Organoaren baimen espresurik gabe eta Mendi Zerbitzuaren baimenik gabe. Mozketak egiteko baimenak irizpide ekologikoen arabera emango dira.
5. Baso-interesik ez duten zuhaitzen kasuan, debehatuta dago ornogabe sapiroilikoentzat, hegaztientzat edo saguzarrentzat interesa izan dezaketen zuhaitzak sutarako moztea.
6. KBEaren baso-baliabideak antolatzeko planak gauzatzen badira, plan horiek basoen naturaltasun-indizearen kalkulua txertatu beharko dute, eta basoen egituraren eta eginkizunaren kontserbazio-egoera globala zehaztu beharko dute. Hartara, hobekuntza-jardunak proposatu ahal izango dira, biodibertsitatea sustatzeko baso-neurriei buruzko aholkuak eman ahal izango dira, eta jarraipen-programa eraginkorrak ezarri ahal izango dira.
7. KBEan eragin handia edo negatiboa izan dezakeen plan edo proiektu orok Ingurumen Ebaluzioko prozeduren mende egon beharko du, eta adierazle neurgarriak izango dituzten helburuak eta berariazko kontserbazio-neurriak barnean hartuko ditu, baita neurri horien kalkulu ekonomikoa islatuko duen aurrekontua ere.
8. Baso-kudeaketa iraunkorreko planetan barnean hartzen diren neurriek plan honetan ezarritakoaren mende egon beharko dute, Landa Garapenerako Programaren laguntzez baliatu ahal izateko. Horretarako, Natura 2000 Sarearen garapenean eskumena duen ingurumen-administrazioak baimendu beharko ditu.
9. KBEaren lur-eremuetan eragina duten gaur egungo baso-antolamenduko planak berraztertuko dira, eta dokumentu hau aintzat hartzen ez badute edo honekin desados badaude, aldatu egin beharko dira dokumentu honetara egokitzeko. Aplikatzekoak izango dira 6. arauan aditzera emandako irizpideak.
10. KBEaren basoetan, funtsezkoak edo kudeaketaren helburu diren espezieetako florari eta faunari eta babes bereziko

erregimeneko florari eta faunari eragozpenak eragin diezazkioketen jardunak saihestu beharko dira (batez ere habiak egiteko eta kumeak hazteko aldietan). Horrez gain:

- Lan-egutegia prestatu beharko da, habiak egiteko eta kumeak hazteko aldietan munta handieneko lanak egin ez daitezen, batez ere apirila eta uztailea artean.
- Zarata-maila handia eragiten duten edo bat-bateko zaratak sortzen dituzten lanak saihestu beharko dira habiak egiteko eta kumeak hazteko aldiak, batez ere apirila eta uztailea artean.
- Habiak egiteko eta kumeak hazteko eremuetatik lanak egiten diren lekuetara 250 metroko gutxieneko tartea utzi beharko da, betiere dagokion eremua adierazita, eta batez ere apirila eta uztailea artean.
- Ur-puntuak babestu beharko dira, urteko sasoiaren arabera ohikoa den ur-maila mantentzeko eta uraren uhertasuna gehituko duten edo esekiduran dauden partikulen kontzentrazioa gehituko duten jardunak egin ez daitezen, jalkinen ekarpena gerta ez dadin, eta ura kutsa dezaketenez gaitan isur ez daitezen.
- Lanak egin ezin diren eta makinak zeharkatu ezin dituzten eremuak argi eta garbi mugatu beharko dira (zinta batekin edo antzeko metodo batekin).
- Apirila eta uztailea artean, egur-metaketak eramatea saihestu beharko da, zenbait hegazti-espezierentzat kumeak hazteko edo elikatzeko puntuak izan daitezke eta.
- Eragina saihestu ezin badaiteke, eta eragina handia bada, jarduera garatzeko balizko ordeko lekuak bilatu beharko dira. Halakorik aurkitu ezean, eta jarduera garatu ezin izanak kalte ekonomikoren bat ekartzen badu, lortu gabeko irabazia konpentsatu beharko da.

11. KBEaren basoetan egurra erauztea eskatzen bada, dokumentu honetan finkatutako kontserbazio-helburuak izan beharko dira kontuan jarduera hori baimentzeko erabakia hartzean, eta erauzpen selektibora baldintzatu ahal izango da, hainbat abarretako oinak dituzten indar txikieneko kimuei lehentasuna emanez.

12. Kontserbaziorako interesa duten eta baso-interesa duten bertako zuhaitzen kasuan (seneszente lepatuak, tamaina handikoak, adartsuak, bigarren mailako espezieetakoak,

pizidoen habiak edo zuloguneak dituztenak, eta abar), zuhaitz horiek ezabatzea saihestuko da, baita lur-eremu partikularretan badaude ere, eta kontserbazio-akordioak ezarriko dira. Behar bezala justifikatutako ezinbesteko arrazoiaren ondorioz, ale horietakoren bat ezabatu behar bada, galera hori konpentsatzeko, ahalik eta hurbilen eta lehenbailehen hautatuko dira egiteko ekologiko bera bete dezaketen zuhaitzak, KBEaren barruan aktibo naturalaren kopuru garbia mantentzen dadin.

13. Zutik eta lurzoruan mantendu beharko da egur hila, tamaina, deskonposizio-egoera eta adina edozein izanik ere, eta batik bat dimentsio handieneko enborrak mantenduko dira. Aldeko kontserbazio-egoera, gutxi gorabehera, honela ezarri da: hektarea bakoitzeko 24 m^3 egur hil baino gehiago; eta 30 cm-tik gorako diametroko zatikietan dagoen egur hileko hektarea bakoitzeko gutxienez 8 m^3 egur hil, eta zutik dagoen egur hileko hektarea bakoitzeko gutxienez 3 m^3 egur hil.
14. Basoko soilgune txikien birpopulazioa saihestu beharko da.
15. KBEaren baso-masak beste baso edo sastrakadi batzuekin lotzen dituzten palaxuak ezabatzea edo degradatzea saihestu beharko da.
16. Kontserbazio xedea duten basoak birpopulatzeko proiektuak badaude, bertako espezieak erabili beharko dira, jatorria KBEtik ahalik eta hurbilen dutenak.
17. Baso-kudeaketan haritzak izango du pagoak baino lehentasun handiagoa baso-masa mistoetan, betiere baso-aprobetxamendua jardun marjinala den lekuetan.

10.2 Baso-igel jauzkaria (*Rana dalmatina*)

Kontserbazio-egoera

Baso-igel jauzkaria (*Rana dalmatina*) espeziearen Europa-mailako hego-mendebaldeko muga Euskal Autonomia Erkidegoan dago, bertan daude iberiar populazio bakarrak. Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrendan sartuta dago, eta kaltebera gisa katalogatuta dago. Era berean, Habitategi buruzko 92/43/EEE Direktibaren IV. eranskinaren barnean hartu da (babes zorrotza eskatzen duten Batasuneko intereseko espezieak).

Urkabustaizko udalerrian hainbat populazio aurkitu dira (Tejado & Potes 2004; Corral, Iturrate & Lasarte 2010) eta KBEaren barruan erreferentziak ere badaude. Espezie hori putzuak dituzten eta zingira-landaredia duten harizti atlantikoko eremuetan bizi da, eremu horietan arrautzak jartzeko baldintza egokiak baititu. Habitat hori da KBEaren habitat nagusia, eta oso urria da inguruan.

Amurrio eta Urkabustaizko goialdeko lur-eremuetako baso-igel jauzkariaren populazioak dira probintziako eta Iberiar Penintsulako populaziorik adierazgarrienak; alabaina, ugaltze-puntu batzuek eraginak jasan dituzte, eta populazioa asko murriztu da puntu horietan, baita populazioen bat desagertu ere.

Ez dakigu espezie hori zer neurritaraino den sentibera hainbat asaldurekiko (abeltzaintzarekiko, hurbil dauden eta erabiltzen diren bideekiko, hurbil garatzen diren nekazaritza-jardueretik, baso-lanetik, etab.). Edonola ere, Corral, Iturrate eta Lasartek (2010) adierazi dute Goi Nerbioiko populazioetako bat baso-erabilera intentsiboa duen intsinis pinudi baten barruan dagoela, denboraldiko putzuak dituen eremu batean hain zuzen ere.

Baso-igel jauzkaria (<i>Rana dalmatina</i>): ezezaguna			
Azalera	Egitura	Eginkizunak	Etorkizun-itxaropenak
Ezezaguna	Ezezaguna	Ezezaguna	Ezezaguna

Baldintzatzaileak

Aurretik zehaztasun gutxiko aipamenak dauden arren, joan den mendeko laurogeiko hamarkadara arte ez zen zinez baieztatu *Rana dalmatina* Euskal Autonomia Erkidegoan

agertzea (Zuiderwijk & Veenstra, 1984). Goi Nerbioi ingurunean 2005eko neguan oharteman zen lehen aldiz espezie horren populazio bat, eta hurrengo urteetan nabarmen gehitu da populazioen kopurua sektore horretan. Hori dela eta, espezie horren banaketaren eta ekologiaren ezagupena osatu gabe dago oraindik ere.

Aditzera eman den moduan, espezie hori KBEan agertzen dela frogatuta dago eta eremu horren barruan espezie horren aldeko habitataren eremu handiak daude: *Quercus robur* espezieko harizti mesotrofoak, putzuak eta urez betetako eremuak dituztenak. Alabaina, guztiz ezezaguna da espezie horren kontserbazio-egoera KBEan.

Rana dalmatina espezieak Iberiar Penintsulan duen arazorik larriena da lurreko eta uretako habitata desagertzearen ondorioz populazioak bakartuta geratu izana. Espeziearen kokapena fluxu genetiko urriko edo gabeko populazio txiki batzuetara mugatzen da (ez dago populazioen arteko migrazioirik); horrek endogamiara eramaten du, eta, hartara, banakoen ugalkortasuna, indarra eta gaixotasunekiko erresistentzia narriatuko da (Sarasola *et al.* 2009). Hori dela eta, garrantzi handikoa da putzuak eta istilak kontserbatzea eta banakoen fluxua ziurtatzea populazioen arteko korridore ekologikoen bidez.

Horrez gain, espeziearen ugaltze-arrakastaren baldintzatzaile nagusietako bat da otsailaren 1etik ekainaren 30era bitartean –larben metamorfosia gertatu artean– putzuak eta istilak edukitzea. Ez dugu KBEan eta inguruan etengabeko ur-puntuei edo etengabe urez beteta egoten diren eremuei buruzko daturik.

Azaldutakoa abiapuntu izanik, dokumentu honetan proposatzen diren helburuen eta erregulazioen funtsa hau izango da: habitat mota hori KBEaren mugen barruan ager dadin eta kalitate ona izan dezan bermatzea, eta KBEko populazioak beste populazio ezagun batzuekin konektatzea.

HELBURUAK ETA ERREGULAZIOAK

2. helburu orokorra	Baso-igel jauzkariak (<i>Rana dalmatina</i>) KBEaren barruan duen kontserbazio-egoera ezartzea, espeziea babesteko eta umatzeko mikrohabitatak edo elementuak egon daitezen sustatzea, eta populazioen arteko konexioa bultzatzea.
2.1. berariazko helburua	Baso-igel jauzkariak (<i>Rana dalmatina</i>) KBEan duen banaketa behar beste ezagutzea, eta mikrohabitaten agerpena eta populazioen arteko konexioa sustatzea.

<p>Erregulazioak</p>	<p>18. Debekatuta dago putzuak eta urez betetako eremuak suntsitzea, habitataren aldaketa adierazgarri oro saihestuta.</p> <p>19. Baso-guneak zeharkatzen dituzten ur-ibilguak babestu beharko dira; ur ibilguetatik enborrak eta adarrak erauztea saihestu beharko da, oso txikiak badira ere, eta, hartara, istil eta putzu naturalen sorrera bermatuko da. Uraren agerpena zainduko da, batez ere udako aldian.</p> <p>20. KBEaren inguruko putzuak eta istilak kontserbatu beharko dira, edozein aldaketa saihestuta. Aldaketak gertatzen badira, umaldian uraren agerpena bermatuko duten istil edo putzu txikiak sortzearen komenigarritasuna aztertuko da.</p>
-----------------------------	---

10.3 Kiropteroak

Kontserbazio-egoera

KBEaren mugen barruan Bechstein saguzarra (*Myotis bechsteini*) aipatu da. Europako testuinguruan kiroptero horrek oso banaketa zabala du, baina espezie bakantzat jotzen da. Banaketa etena du, eta baso-habitat helduekin eta anitzekin lotzen da. Bonn-go Hitzarmenaren II. eranskinean zerrendatuta dago (Europako saguzarrei buruzko akordioan, 1994), baita Berna-ko Hitzarmenaren II. eranskinean (eta haren gomendioetan) eta Europar Batasuneko Habitatai buruzko Direktibaren II. eta IV. eranskinetan ere. IUCN erakundearen 1996ko zerrenda gorriak espezie kaltebera gisa sailkatu du (VU A2c). Era berean, kaltebera gisa katalogatuta dago 139/2011 Errege Dekretuan –139/2011 Errege Dekretua, otsailaren 4koa, Babes Bereziko Erregimeneko Basaespezieen Zerrenda eta Arriskuan dauden Espezieen Espainiako Zerrenda garatzen duena–.

Euskal Autonomia Erkidegoan espezie bakana da. Duela gutxira arte, kokagune ezagun gehienak Toloño mendilerroaren ingurura mugatzen ziren, baina 2005. urtean umatze-kolonia bat aurkitu zen “Urkabustaizko irla-hariztiak” KBEaren Godamo mendiko eta Zuiako haraneko sektorean, zehazki Montegrande eta Chopera artean, Abornikanotik hurbil, eta beste bat Inoson (Oiardotik hurbil dauden bi sektoreetatik iparraldera, 2 km-ra). Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrendan, Bechstein saguzarra galzorian dagoen espezie gisa sailkatuta dago.

KBEan aurkitu den babeslekua Montegrande eta Chopera artean kokatuta dagoen 22 metroko altuerako haritz kandudun batean dago. Kolonia horretan 27 kide erroldatu da

(2007ko uztailaren 13an, larrialdian, egindako errolda). Markatutako eme bati gaueko larreratzean egindako jarraipenaren bidez zehaztu diren ehiza-eremuak ingurune hauetan kokatu dira: koloniaren inguruan, KBEaren barruan; eta Baia ibaiaren ertzeko baso batean, Eskallotegi eta Entrerrios artean (Baia ibaia ES2110006 BILean).

Ez da ezagutzen KBEaren barruko zein kanpoko populazioaren kideen kopurua, ezta espezie horrek hainbat asaldurarekiko duen sentiberatasuna ere (abeltzaintzarekiko, hurbil dauden eta erabiltzen diren bideekiko, hurbil garatzen den nekazaritza-jarduerarekiko, baso-lanekiko, eta abar). Hori dela eta, zaila da jakitea Bechstein saguzarra zer mehatxuren eta presioren eraginpean dagoen.

Bechstein saguzarra (<i>Myotis bechsteinii</i>): ezezaguna			
Azalera	Egitura	Eginkizunak	Etorkizun-itxaropenak
<i>Ezezaguna</i>	<i>Ezezaguna</i>	<i>Ezezaguna</i>	<i>Ezezaguna</i>

Baldintzatzaileak

Kiropteroei ez zaie arreta handia eskaini duela urte gutxira arte. Horrenbestez, eta azken hamarkada honetan fauna multzo horri buruzko azterketa batzuk egin diren arren, gutxi dakigu KBEan eta inguruko eremuetan duten banaketari buruz, horien populazioen tamainari eta joerei buruz, dituzten eskakizunei buruz, eta abar. Horien kontserbazio-egoera zein den jakiteko urrun gaude. Ildo horretan, aipatu behar da KBEan ezagutzen den Bechstein saguzarraren kolonia bakarra baso-eremu batean kokatzen dela eta ematen duela bertan babesleku ugari dituela. Ezin da baztertu, beraz, koloniak beste babesleku batzuk ere okupatzea edo eremu horretan beste kolonia batzuk ere egotea.

Bechstein saguzarra baso-ohiturak dituen espezie bat da, altitude txikian kokatzen diren bertako baso hostoerorkor zaharrekin lotzen dena eta zuhaitzen zuloguneetan koloniak egiten dituen. "Urkabustaizko irla-hariztiak" KBEko kolonia haritz kanduduneko baso batean kokatzen da, non oihanpea oso urria den abeltzaintza-erabilera handiaren ondorioz. Jakin badakigu espezieak oihanpe urriko dehesa itxurako baso-formazioak okupatu ohi dituela; hortaz, kirottero honentzat, abeltzaintzak eragin onuragarria du habitataren gainean. Haatik, alderdi hori egiaztatu behar da, benetan ez baitakigu abeltzaintzak eraginik baduen, aldeko eragina duen edo eragin kaltegarria duen espezie hau bertan agertzeko. Bestalde, motor-ibilgailuek erabiltzen duten bide batetik metro gutxira dago kolonia, eta ez dakigu horrek zer eragin duen koloniarengan.

Funtsezkotzat jo da saguzar honen ehiza-eremuaren barruan etengabeko ur-geldoko puntu bat egotea, eta oharteman da nahiago dituztela baso barruko putzu eta istil txikiak (baita 5 m² ingurukoak ere). Hori faktore mugatzailea da koloniak ezartzeko garaian, esnea sortzen

ari diren emeek maiztasun handi samarrez behar baitute ura. Ez dugu KBEan eta inguruan egon daitezkeen etengabeko ur-puntuei buruzko daturik. Nolanahi ere, Baia ibaia hurbil egotea nabarmendu behar da, ibai horretatik hurbil (zehazki Baia ibaia BILaren mugen barruan) elikatzen baita kolonia.

Zuhaitzetako zuloguneak eta pitzadurak ezinbesteko babeslekuak dira espeziearentzat; hortaz, zuhaitz helduak behar ditu. Godamo mendiaren zuhaitziaren egiturari eta konposizioari buruzko datu kuantitatiboak besterik ez ditugu, eta bertan zulogune eta hildako oin ugari agertzen da; alabaina, ez da KBEaren gainerakoaren egoera ezagutzen, ezta babesleku kokatzen den eremuaren egoera ere. Nolabaiteko lotura dago pizidoen eta baso-kiropteroen agerpenaren artean, lehenek enborretan sortzen dituzten zuloak saguzarren zenbait espeziek balia baititzakete. KBEan okil berdea (*Picus viridis*), okil handia (*Dendrocopos major*) eta okil txikia (*Dendrocopos minor*) agertzen direla egiaztatu da.

Nabarmendu behar da saguzar honek maiz erabiltzen dituela babesleku artifizialak, eta horiek balia daitezke behar besteko babesleku naturalik ez duten enklabeen kolonizazioa sustatzeko (Taaqe eta Hildenhagen, 1989).

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore batzuetan pinu-sailak aldi berean berariazkoak ez diren intsektizidekin lainoztatzen dira –hala nola diflubenzuron-ekin (Dimilin) edo *Bacillus thuringiensis*-ekin– pinuaren prozesionaria (*Thaumetopoea pytiocampa*) kontrolatzeko. Tratamendu horiek baso-saguzar batzuegan eragina izan dezakete, dibertsitatea eta harrapakinen biomasa murriztea eragiten baitute tratamenduaren ondorengo hilabeteetan (udaren hasieran), eta une hori, hain zuzen ere, bat dator saguzarren edoskitze-aldiarekin, hots, saguzarrek premia energetiko handiagoa duten aldiarekin (Aihartza et al. 2006). KBEaren inguruan zenbait pinu-sail dago, eta horietako batzuk Bechstein saguzarraren babeslekuetik metro gutxira. Ez dakigu KBEaren alboko baso-masetan baso-tratamendu horiek aplikatzen diren.

Aurrez aditzera emandakoa abiapuntu izanik, uler daiteke dokumentu honetan proposatzen diren helburuek eta erregulazioek habitataren kalitatea bermatu nahi izatea, baita KBEaren mugen barruan babeslekuak egotea ere. Haatik, dokumentu honek esku hartu ezin duen beste alderdi batzuk ere badaude, KBEaren mugez kanpo jardun beharko baitu; alderdi horien artean daude espeziearen larreratze-habitatak aldatzea, aukera trofiko murriztea edo biozidak aplikatzea.

HELBURUAK ETA ERREGULAZIOAK

3. helburu orokorra	Bechstein saguzarraren (<i>Myotis bechsteinii</i>), kontserbazio-egoera ezartzea, populazioak egonkor mantentzea eta berariazko habitatak egon daitezzen sustatzea.
3.1. berariazko helburua	Bechstein saguzarraren (<i>Myotis bechsteinii</i>) banaketa, ugaritasuna eta eskakizunak behar beste ezagutzea.

Erregulazioak

21. Umatze-kolonien inguruan (gaur egun X: 509.750; Y: 4.753.330), 900 m-ko erradioa duen sektorean, baso-ustiapena, azpiegituren eta eraikinen ezarpena edo lur-higidura eragingo duen edozein jardunek KBEaren Kudeaketa Organoaren baimena eduki beharko du, baita jolas- edo kirol-jarduera antolatuak egin nahi badira ere. Arau hori aplikatzeak eskatzailearen irabazi ekonomikoetan murrizketaren bat sortzen badu, edo lortu gabeko irabaziren bat eragiten badu, Kudeaketa Organoak konpentsatu egin beharko du. Baimenduta dago jai-jarduera tradizionalak egitea eta jolas- eta kirol-jarduera antolatuak egitea, betiere Kudeaketa Organoaren aurretiazko baimenarekin.
22. Umatze-kolonien inguruan (gaur egun X: 509.750; Y: 4.753.330), 900 m-ko erradioa duen sektorean, debekatuta dago hondakinak isurtzea eta biltegiatzea.
23. Umatze-kolonien inguruan (gaur egun X: 509.750; Y: 4.753), 900 m-ko erradioa duen sektorean, debekatuta dago berariazkoak ez diren intsektizidak erabiltzea baso-plagak kontrolatzeko. Horren ordez, pinuaren prozesionariarentzako (*Thaumetopoea pityocampa*) berariazko tratamenduak erabili ahal izango dira, hala nola intsektu horren (Pityolure) feromona sexualen poltsak jartzea.
24. Bechstein saguzarrarentzat interes berezia duten eremuetan, eta, hortaz, espezie horren kontserbazioan edo leheneratze-aukeretan, zuzenean edo zeharka eragina izan dezakeen edozein plan edo proiektu –bera bakarrik edo beste plan edo proiektu batzuekin batera eragina izan dezakeena– ebaluazio egokiko prozeduren mende izango da. Ebaluazio horrek honako alderdi hauek, besteak beste, hartuko ditu aintzat: baso-tratamenduetan berariazkoak ez diren intsektiziden erabilera; eta landarediaren egoeraren aldaketa, zehazki, zuhaitz zaharrak, hilak edo hiltorian daudenak ezabatzea eta erauztea, eta dibertsitatea aldatzea zuhaitzen espezieetan eta adinean.
25. Koloniaren inguruneetan, KBEaren mugez kanpo, espezie exotikoen sailak bertako espezieekin ordezkatzera sustatu beharko da. Administrazio publikoen laguntzak bertako basoen ustiapenera ez ezik, espezie exotikoen ustiapenak bertako espezieen ustiapenekin ordezkatzera ere zuzendu beharko dira.

	<p>26. Urkabustaizko irla-hariztietako Bechstein saguzarraren populazio ezagunak Inosoko populazioekin eta Gorbeiaiko parke naturaleko populazioekin konektatuko dituen harizti eta amezti sarea sortzea aztertu eta proposatu beharko da.</p>
--	--

10.4 Konektagarritasuna eta irla-basoen beste prozesu ekologiko batzuk

Kontserbazio-egoera

“Urkabustaizko irla-hariztiak” KBEa beste baso-eremu batzuek bakartuta geratu diren hiru baso-eremuz osatuta dago (batez ere hariztiak). Horren gainera, hainbat azterlanek aditzera eman dute baso-eremu horiek garrantzi handikoak direla EAEko eta Arabako Lurralde Historikoko korridore ekologikoen sarrerako (Gurrutxaga 2005 eta Mallarach et al. 2005, hurrenez hurren). Oiardotik hurbil dauden KBEaren bi sektoreak bakartuta daude haien artean, baita beste baso-espazio batzuekiko bakartuta ere; izatez, sektore horiek labore-lurrak nagusi diren lautada batean daude eta garraio-azpiegitura linealak ere badaude bertan (bi sektore horien artean bideratzen den A-2521 errepidea esate baterako). Godamo mendiko eta Zuiako haraneko sektoreak ez du aipatutako beste bi sektoreen bakartze-maila bera, ekialdetik alboan baititu Bakubitxi sektoreko baso-eremu zabalak eta hegoaldean Baia ibaiaren ibai-ibilgua baitu. Hala ere, AP-68 autobidearen ondoriozko oztopo- eta zatikatze-efektu handiaren eragin negatibo nabarmena du; izan ere, sektorea bitan banatzen du eta Godamo mendia oso bakartuta uzten du.

Eremu horretan animalien joan-etorriari buruzko azterketa enpirikorik ez dugunez gero, dokumentu honetan DISPERSA eredu aplikatu da (Rosell et al. 2003) Urkabustaizko irla-hariztien eta horien inguruan dauden Natura 2000 Sareko espazioen arteko konektagarritasun ekologikoa aztertzeko. Eredu horrek Dehesako eta Garaiko sektoreetan Oiarde errekaren eta haren ibaiadarren gaineko interesa nabarmentzen du; izan ere, bi ibilgu horiek baso-fauna eta, batik bat, baso-ornodunak barreiatzeko erresistentzia txikiko eremutzat jo dira. Oiarde errekak eta haren ibaiadarrek KBEaren bi sektoreak Beluntza mendiko zuhaitz-eremuekin (ekialdean) lotzen dituzte. Horrez gain, bi sektore horiek aztergai dugun eremuaren konektagarritasun orokorrean duten garrantzia ere adierazi da, pasabide gisa (*stepping stones*) jarduten baitute Natura 2000 Sareko espazio naturalen artean (zehazki, Gorobel mendilerroa mendebaldean, Arkamu-Gibillo-Arrastaria hegoaldean eta Gorbeia ekialdean). Bestalde Godamo mendiko eta Zuiako haraneko sektorean, hegoaldeko zatian sortzen diren hainbat ibai-ibilgu dago. Ibilgu horiek autobidearen drainatze-egituretatik

autobidea gainditu eta, Godamo mendia zeharkatuta, Baia ibaiaren ibaiadar den Badillo ibairantz jotzen dute. Ibilgu horiek interes handia dute Godamo mendia hegoaldeko eremuarekin konektatzeko zein Badillo eta Baia ibaiekin konektatzeko; nolahi ere, gaur egun autobidearen azpiko drainatze horiek ez daude fauna pasatzeko egokituta, eta horrek arras murrizten du ur-ibilgu horien konexio-eginkizuna.

Oiardotik hurbil dauden sektoreetan ez dago orla-landarediko zerrenda naturalik edo basoen eta espazio irekien arteko trantsizio-landarediko zerrenda naturalik, baina badaude sega-belardiak inguratzen dituzten eta KBEaren basoetara iristen diren palaxuak.

Mehatxu nagusienak KBEa osatzen duten hiru baso-masak bakartuta egotearen eta azalera txikia izatearen ondoriozkoak dira, baita KBEaren barruan eta inguruetan azpiegitura, nekazaritza-erabilerak eta baso-erabilerak agertzearen ondoriozkoak ere.

Baldintzatzaileak

Habitatak bakartuta eta zatikatuta egoteak KBEko floraren, faunaren eta prozesu ekologikoen gainean duen eraginari buruzko azterketa kuantitatiborik ez dago, ezta KBEko faunaren eta beste espazio babestu batzuetako faunaren artean –baita KBEaren eremuaren barruko faunaren artean– egon daitezkeen fluxu ekologikoei eta joan-etorriei buruzko datu enpirikorik ere. Hala ere, modelizazioan oinarritutako zenbait azterlanek (dokumentu hau idazteko egindako azterlanak ere bai) faunarentzat korridore izateko ezaugarri egokiak dituzten zenbait eremu identifikatu dituzte.

Oiardotik hurbil dauden bi sektoreen bakartzea murrizteko jardunek bi sektore horien inguruko lurraldean esku hartzea eskatzen dute –hau da, KBEaz kanpo, eta baldintza onetan mantendu beharko dira eremu horretatik hurbil dauden ibai-ibilguak–. Godamo mendiaren isolamenduari dagokionez egoera onean mantendu beharko dira KBEaren barruan dauden ibai-tarteak, baina autobidea iragankor egin beharko da nahitaez. Nabarmendu behar da A-2521 errepidean harrapaketa asko gertatzen dela, batez ere 23 eta 27 puntu kilometrikoen artean –KBEaren 3. sektorearen (Godamo mendia) iparraldeko mugaren kanpotik 400 m-ra baino gehiagora–.

Azkenik, KBEaren sektoreen eta lehentxeago adierazitako Natura 2000 Sareko espazioen arteko konektagarritasunari eusteko, belardiak eta labore-lurrak inguratzen dituzten KBEaren kanpo-landarediko zerrendak mantendu beharko dira.

HELBURUAK ETA ERREGULAZIOAK

4. helburu orokorra	KBEaren hiru sektoreen arteko konektagarritasuna ziurtatzea.
4.1. berariazko helburua	“Urkabustaizko irla-hariztiak” KBEaren konektagarritasuna hobetzea.

<p>Erregulazioak</p>	<p>27. Urkabustaizko irla-hariztietako 3 sektoreen artean eta horien eta Arkamu-Gibillo-Arrastaria eta Gorbeia BILen artean definitutako korridoreak aintzat hartu beharko dira ingurumen-eta lurralde-plangintzan, baita ingurumen-ebaluazioko prozeduretan ere. Horrela, eraginkortasunez bermatuko da espazio horien arteko konektagarritasun espaziala eta funtzionala.</p> <p>28. KBEaren hiru sektoreen eta Gorbeia eta Arkamu-Gibillo-Arrastaria Natura 2000 Sareko espazioen arteko konexio funtzionala ahalbidetuko duten ibai-habitatak leheneratzeko plana sustatu beharko da –KBEaren 3 sektore horietatik hurbil dauden ibai-habitatak dira–.</p> <p>29. Inguruko abeltzainen eta nekazarien artean sustatu beharko da eutsi egin beharko zaiela partzelak bereizten dituzten landaredi-zerrendei, baita belardiak eta labore-lurrak mugatzen dituztenei edo bide-ertzetan daudenei ere.</p>
-----------------------------	---

11. KUDEAKETAN LAGUNTZEKO TRESNAK

11.1 Biodibertsitateari buruzko informazioa eta ezagutzak

Baldintzazaileak

Aurreko ataletan egiaztatuta geratu da ez dagoela elementu gehienek kontserbazio-egoera ezartzeko oinarriko informazio egokirik. Florari, faunari, habitatei eta prozesu ekologikoei buruzko ezagutza askieza eta desberdina da, baina kasurik gehienetan ezin da ezarri zein den gaur egungo eta aldeko kontserbazio-egoera, ez datu kuantitatibo bidez, ezta, askotan, datu kualitatibo bidez ere. Eskura dugun kalitateari buruzko informazioak edo ezagutzak eragotzi egiten digu kontserbazio-egoerari buruzko ebaluazio egokia egitea, eta zaildu egiten du kontserbazio-politika aktiboaren arloko erabakiak hartzea, baita inpaktuen ebaluazio egokia eta prebentzioa egitea ere.

Faunari eta florari buruzko ezagutza askieza da, eta oso desberdina organismo multzo batetik bestera. Landare-espezia nagusi batzuen, ugaztunen eta hegaztien agerpenari buruzko informazioa besterik ez dugu, baina ez da ezagutzen horien kokalekua, ugaritasuna, eskakizunak, kontserbazio-egoera, bilakaera, populazio dinamika, eta abar. Hori dela eta, funtsezko elementu askotarako gaur egungo kontserbazio-egoera definitzeko neurriak hartu behar dira. Era berean, ez dugu kausa antropikoen ondoriozko hilkortasunari buruzko daturik, hau da, ez dugu linea elektrikoaren, ezkutuko ehizaren, zapaltzeen eta abarren ondoriozko heriotzeen berri, eta ibilgailu bidezko harrapatzei buruzko informazio partziala dugu. Hortaz, oso zaila da beharrezko neurriak ezartzea.

EAEko habitaten eta landare-diaren kartografia abiapuntu izanik eta dokumentu hau lantzeko egindakoa kontuan hartuta, habitatei buruzko ezagupen partziala dugu. Hartara, habitaten azalera eta banaketa soilik ezarri ahal izango da, baina ez dago habitaten egiturari, eginkizunei, kalitateari, konposizioari, inpaktuei eta abar buruzko daturik, eta gerta daiteke zuzen islatuta ez egotea azalera txikiko habitatak eta espezie jakin batzuk behar dituzten mikrohabitatak (zulguneak, egur hila eta abar). Aditza eman behar da mapa horiek eguneratzea eta, horrenbestez, denborarekin duten bilakaera monitorizatzea ziurtatuko duen prozedurarik ez dagoela, eta, hori dela eta, urte gutxitan zaharkituta gera daitezkeela.

“Urkabustaizko irla-hariztiak” KBEa Natura 2000 Sarean barnean hartzea eragin duten elementuen gaur egungo eta aldeko kontserbazio-egoera definitzea lege-betebehar bat da, eta, horretarako, behar-beharrezkoa izango da mekanismo arinak ezartzea, bai aldaketei buruzko informazio estandarizatua administrazioen artean trukatzeko, bai autonomia-erkidegoaren, estatuaren eta Europar Batasunaren mailako ebaluazioak egiteko. Euskal eskumenen erregimenaren arabera, Arabako Foru Aldundia da espazioaren erakunde publiko kudeatzailea, eta Eusko Jaurlaritza da Natura 2000 Sarearen arduraduna eta Estatu

eta Europar Batasunaren mailako informazio-transmisioaren arduraduna. Hortaz, informazioaren transmisiorako prozedura eraginkorrak eta arinak ezarri beharko dira.

Biodibertsitateari buruzko informazioa ez da beti lorrerraza, eta, batzuetan, sakabanatuta dago administrazioen, unibertsitateen, erakundeen, kolektiboen edo partikularren esku. Ildo horretan, nabarmendu behar da Eusko Jaurlaritzak berriki abian jarri duen Biodibertsitateari buruzko Informazio Sistema sortzeko ekimena. Bertan, administrazio horrek sortu duen informazioa bilduko da, baina, halaber, sisteman datuak etengabe sartzeko aukera emango die informazioa sortzen duten erakundeei.

Natura-ondarea babesteko politiken gabeziak bat da biodibertsitateak gizarteari eskaintzen dizkion onurak (ekonomikoak, sozialak, ingurumenekoak, eta abar) behar bezala baloratu ezin izatea. Horrek, segur aski, eragingo du politikoei eta eragile ekonomikoek hura azpibalaratzea eta gizarteari eskaintzen dion onurak interes txikia izatea –hartaz gozatzeko aukeraz gain–. Soilik produktu batzuen finantza-balioa (zurarena batik bat) ekonomikoki baloratzeko mekanismo nolabait estandarizatuak ditugu, baina ez dugu ingurumen-zerbitzuen balioa kuantifikatzeko informaziorik eta metodo estandarizaturik, ezta ingurumen-inpaktuak edo galerak ekonomikoki baloratzeko ere. Horrez gain, oro har, kontserbazio-helburuak espezie edo habitat jakin baterantz bideratuta daude, baina ez ingurumen-zerbitzuetarantz eta espazio bat gizartearentzat babesteak eragiten dituen onuretarantz. Era berean, biodibertsitatea eta ekosistema-zerbitzuak ezagutzearen eta baloratzearen garrantzia nabarmendu da Nazio Batuen Hitzarmenaren 2011-2020 Plan Estrategikoan eta 2020ra arteko biodibertsitateari buruzko Europar Batasuneko estrategian.

HELBURUAK ETA ERREGULAZIOAK

5. helburu orokorra	Behar besteko doitasunez ezagutzea Urkabustaizko irla-hariztietako biodibertsitatearen kontserbazio-egoera eta erreferentziatzko aldeko kontserbazio-egoera, eta horren galera edo narriadura eragin dezaketen kausak zehaztea, kontserbazio-egoera epe luzera mantentzeko beharrezko neurriak diseinatze eta egokitzeko.
5.1. berariatzko helburua	Aldian-aldian eguneratua edukitzea kontserbaziorako interesekoak diren habitat guztien kartografia, baita dibertsitate biologikorako eta integritate ekologikorako garrantzizkoak diren enklabe edo elementu naturalen edo kulturalen kartografia ere.

<p>Erregulazioak</p>	<p>30. “Basa fauna eta florarentzat interesekoak diren elementu kultural, natural eta geomorfologikoen georreferentziatutako inbentario irekian” jasotzen diren elementuak babestu beharko dira, eta horien gainean eragina izan dezakeen edozein jarduerak ebaluazio-prozedura egokien mende egon beharko du. Gainera, arintzeko edo konpentsatzeko neurri egokiak aplikatu beharko dira, hala badagokio.</p> <p>31. Inbentarioko elementu bat behar bezala justifikatutako arrazoiaren ondorioz halabeharrez galtzea edo narriatzea baimentzen bada, aurretik konpentsatu egin beharko da, eta, horretarako, eginkizun ekologiko bera beteko duten beste elementu batzuk ahalik eta hurbilen sortu edo leheneratuko dira.</p> <p>32. Inbentarioan jasotako elementuak agertzen diren finketako jabeekin akordioak edo konpentsazioak ezarriko dira, elementu horien kontserbazioa ziurtatzeko.</p>
<p>5.2. berariazko helburua</p>	<p>Babes bereziko erregimeneko habitaten eta basaespezieen eta funtsezkoak edo kudeaketaren helburu diren elementuen kontserbazio-egoera ezagutzea.</p>
<p>5.3. berariazko helburua</p>	<p>Urkabustaizko irla-hariztietako dibertsitate biologikoaren balio ekonomiko osoa kalkulatzeko, baita bertako espezieek eta ekosistemek eskaintzen dituzten ingurumenaren arloko zerbitzuak eta ondasunak ere.</p>
<p>5.4. berariazko helburua</p>	<p>KBEan eta haren inguruan basafaunaren hilkortasun ez-naturalerako puntu beltzen mapa lantzea.</p>
<p>Erregulazioak</p>	<p>33. Jaki pozoituen erabilera errepikatua oharrekin bada, beharrezko neurriak hartu beharko dira –“Naturagunean jaki pozoituen legez kanpoko erabileraren aurkako estrategia nazionalen” aurreikusten diren neurrien artean–.</p>
<p>5.5. berariazko helburua</p>	<p>Akuiferoaren gaineko eraginak ezagutzea eta prebentzio-erregimena eta alerta-sistema abian jartzea.</p>

Erregulazioak	<p>34. KBEaren barruan eta inguruan baimentzen diren erabilerek eta aprobetxamenduek akuiferoen kontserbazioa bermatuko duten baldintzatzaileak hartu beharko dituzte barnean.</p> <p>35. KBEaren inguruan kokatzen diren jardueren ingurumen-inpaktuari buruzko azterketek arreta berezia jarri beharko diote akuiferoen gaineko eraginari.</p>
----------------------	--

11.2 Herritarrei zuzendutako komunikazioa, hezkuntza partaidetza, eta kontzientzia

Baldintzatzaileak	
<p>Azken urteetan, eta dinamika demokratiko zabala sustatzeko asmoz, administrazioak (Europar Batasunetik hasita toki-administrazioetara) gobernantza onaren printzipioen mende ari dira lan egiten. Printzipio horien helburua da: herritarrei informaziorako sarrera libre bermatuko dieten organoak eta prozedurak ezartzea; gai publikoen kudeaketaren ulermena erraztea; gizarte eragile guztien parte-hartze handiagoa sustatzea; herritar guztiek iritzia emateko aukera izatea; eta administrazioak haren egitekoen kontu eman behar izatea.</p> <p>KBEaren azaleraren ia % 85 toki-erakundeek jabetzako herri-onurako mendiei dagokie, eta horrek kudeaketa erraztu beharko luke. Edonola ere, jabe eta erabiltzaile pribatuak jakin beharko dute Natura 2000 Sarearen parte direla, eta ezagutu beharko dute horrek zer ondorio duen eta zer arrazoiengatik barnean hartu diren sare horren barruan.</p> <p>KBEak ez du ingurumenaren arloko harrera, komunikazio eta interpretazioko berariazko programarik edo ekipamendurik, ezta informazio-txartelik ere.</p>	
HELBURUAK ETA ERREGULAZIOAK	
6. helburu orokorra	<p>“Urkabustaizko irla-hariztiak” KBEan eragina duten erabakiak hartzeko prozesuetan gizarte-partaidetza sustatzea, baita herritarren inplikazioa eremu horien kontserbazioan.</p>
6.1. berariazko helburua	<p>Herritarrei aldi berean behin informazio ulergarria ematea KBEaren biodibertsitatearen kontserbazio-egoerari buruz, ingurumen laguntzei buruz, egoera kaskarrak eragiten dituzten kausei buruz, arloko politika publikoei buruz eta horien emaitzei buruz.</p>

Erregulazioak	<p>36. Jendaurreko informazioaren mende izan diren dokumentuetan, plan honen helburuekin lotura duten eta baliabide publikoekin kontratatzen eta finantzatzen diren Urkabustaizko irla-hariztietako lan zientifiko eta tekniko guztiek laburpen-dokumentu dibulгатiboak izango dute, herritarrek erraz ulertzeko modukoa.</p> <p>37. Eusko Jaurlaritzaren ingurumen-organoaren egoitza elektronikoaren bidez hedatu beharko dira KBEan egin diren lanak. Laburpen dibulгатiboak, berriz, egoitza elektroniko berean, udaletxeetako informazio-oholetan eta Kontzejuaren etxean hedatu beharko dira, eta eskatzen dituzten herritarrei eman beharko zaizkie.</p>
6.2. berariazko helburua	Herritarrak espezieen eta habitaten kontserbaziorako ezagupen-jardueretan inplikatzeko eta boluntariora sustatzea.
Erregulazioak	<p>38. KBEaren intereseko habitatak eta espezieak ezagutaraziko dituzten ingurumen-heziketako jarduerak bultzatu beharko dira, landako behaketak barne –baldin eta horiek habitataren edo espeziearen kontserbaziorako arriskutsuak ez bada–. Halaber, biodibertsitatearen jarraipeneko edo behaketako sareetan inskribatzen diren behaketa-jarduerak sustatu beharko dira.</p> <p>39. Habitatak eta espezieak aztertzekeo jarduerak sustatu eta erraztu beharko dira. Horretarako, boluntariora-jarduerak bultzatuko dira, hala nola KBEan eraztunketa zientifikoa eginda, Esfortzu Konstanteko Estazio bat ezarrita edo nazioarte-mailan koordinatutako proiektuetan parte-hartuta, hala nola PASER edo EMAN proiektuetan. Horrez gain, hegaztien jarraipenak egingo dira errolda linealen bidez (lka) edo entzute-puntuen bidez (lpa). Lehentasuna duten espezieen jarraipena egingo da umaldian, eta anfibioen jarraipena ere bai.</p>
6.3. berariazko helburua	Herritarren proaktibitatea sustatzea espezieen eta habitaten kontserbazioan, batik bat finken kudeaketaz arduratzen diren pertsonena.
Erregulazioak	<p>40. KBEaren lurraldean kontserbazio-jardunbide onak aplikatzea eragingo duten jardueretarako hobari-ildoak sustatu beharko dira.</p>

	41. KBEaren lurraldean kontserbazio-jardunbide onak aplikatzea eragingo duten jardueretarako aintzatespen-formulak sustatu beharko dira.
--	--

11.3 Gobernantza

Baldintzatzaileak

Europar Batasuneko kide diren estatuak dira Natura 2000 sarearen arduradunak, Eusko Jaurlaritza da Euskal Autonomia Erkidegoan sare horretako espazioak izendatzearen arduraduna, eta, azaroaren 25eko 27/1983 Legearen indarrez, horren kudeaketa Arabako Lurralde Historikoko foru-erakunde aginpidedunari dagokio. Espazio horretan Biodibertsitatearen arloko Eusko Jaurlaritzaren Zuzendaritzak eta Foru Aldundiak garatutako jardunak koordinatuko dituen lantalde egonkorrik ez dago. Horrek zaildu egiten du politiken eta jardunen koordinazioa, eta, hartara, bi erakunde horien artean eginkizunak gainjar daitezke edo espazioaren kudeaketan eragina izan dezaketen kontraesanak ager daitezke.

Europar Batasuneko Batzordearen eta Kontseiluaren irizpenaren arabera, Natura 2000 Sarearen kontserbazioa helburutzat hartu beharko da plangintza eta garapen sozioekonomikoko tresna sektorial guztietan. 42/2007 Legeak ezarri du botere publiko guztiek, haien eskumenen esparruan, sustatu beharko dituztela natura-ondarearen, oro har, eta, hortaz, lege horren erregulazioaren mende dagoen Natura 2000 Sarearen kontserbazioan eta zentzuzko erabileran lagunduko duten jarduerak. Elkarlan egokia egiteko eta sektore askotariko itunak sustatzeko erakundeek dituzten zailtasunek eragotz dezakete proposatutako helburuak lortzea.

Kontserbazio-neurriak eraginkortasunez eta eragimenez aplikatzeko, komenigarria izan daiteke: tartean dauden administrazioak, erakundeak eta gizarte-eragileak dinamizatzeko gauza izango den egitura eratzea; ekintzen eta emaitzen jarraipena egitea; horien berri ematea; beste ekintza batzuk proposatzea; eta aurreikusitako helburuak lortzeko beharrezko aldaketak proposatzea, behin tartean dauden alde guztiei eta arlo horietako adituei kontsultatuta.

HELBURUAK ETA ERREGULAZIOAK

7. helburu orokorra	Aginpidea duten erakunde publiko guztien koordinazioa hobetzea, eta dagoen ingurumeneko eta sektoreko araudi oro egokitzea, dokumentu honekin eta ezartzen diren kontserbazio-neurriekin koherentea izan dadin.
---------------------	--

7.1. berariazko helburua	Biodibertsitatearen arloan aginpidea duen Eusko Jaurlaritzaren Zuzendaritzak eta Arabako Foru Aldundiak “Urkabustaizko irla-hariztiak” KBEan garatzen dituzten jardunak koordinatzeko batzorde tekniko iraunkorra eratzea.
7.2. berariazko helburua	Gaur egun dagoen ingurumeneko eta sektoreko araudia egokitzea, kontserbazio-neurri hauek aplikatu daitezkeen errazteko.
Erregulazioak	42. Plan honen aplikazio-esparruan eragina duen edozein plan sektorialek, nahitaezko neurri prebentiboak eta inpaktuak murrizteko neurriak txertatzeaz gain, KBEaren biodibertsitatean eragin positiboak eta ebaluagarriak dituzten neurriak ere txertatu beharko ditu.

12. BIBLIOGRAFIA

- Aihartza, J.R. 2001. *Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako kiropteroak: banaketa, ekologia eta kontserbazioa*. Doktorego Tesien Bilduma, Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua. Leioa.
- Aihartza, J.; Garin, I. & Goiti, U. 2006. *Propuesta de Plan de recuperación del murciélago mediterráneo de herradura en la CAPV*. EHUren Zoologia eta Animalia Zelulen Biologia Saila. Txosten argitaratu gabea. 23 or.
- Lurralde eta Biodibertsitate Arloa. 2010. Revisión de la Cartografía de Vegetación y usos del suelo de la CAPV. Memoria teknikoa. Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila. 15 or. + eranskinak.
- Salvadoro elkarte. 2009. *Atlas de pequeños carnívoros de la Comarca Cantábrico-Alavesa*. Arabako Foru Aldundia. Amurrio. 103 or. + eranskinak.
- Bartolomé, C. et. al. 2005. *Los tipos de hábitat de interés comunitario de España. Guía básica*. Ministerio de Medio Ambiente. Dirección General para la Biodiversidad. Madril. ISBN 8480146273. 287 or.
- Bea, A. 1999. *Vertebrados amenazados del País Vasco* (1. argitalpena). Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Zentrala, Gasteiz. 317 or.
- Blanco, J.C. & González, J.L. 1992. *Libro Rojo de los vertebrados de España*. ICONA. Madril. 714 or.
- Confederación Hidrográfica del Ebro. *Fichas de masas de agua. Cuartango – Salvatierra (013)*. Dokumentu argitaratu gabea. 4 or.
- Corral, M, Iturrate, X. & Lasarte, P. 2010. *Cuatro años de seguimiento de las poblaciones de rana ágil (Rana dalmatina) del Alto Nervión 2.006-2.009*. Agile Frog Team. Aiara-Araba. 24 or. + Mapak.
- Arabako Foru Aldundia. 2008. Arabako kiropteroen kudeaketa. Jardunaldi hauetan aurkeztutako komunikazioa: *Jornadas para la conservación y gestión de los quirópteros*. 2008ko azaroaren 3-5, Cáceres.
- Domingo, M.A. 1995. Nuevos datos sobre la distribución del lagarto ocelado *Lacerta lepida* (Daudin, 1802) en la provincia de Álava (País Vasco). *Munibe* 47: 111-112 or.
- Ekos Estudios Ambientales. 2002. *La rana patilarga Rana ibérica Boulenger, 1879 en la Comunidad Autónoma del País Vasco*. Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila, Eusko Jaurlaritza. 8 or.
- Francisco, M. (koord.). 2007. *Cartografía de hábitats, vegetación actual y usos del suelo de la Comunidad Autónoma del País Vasco*. Txosten teknikoa. Eusko Jaurlaritza. Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila. 12 or. + eranskinak.
- Galante, E. & Verdú, J. R. 2000. *Los artrópodos de la Directiva Hábitat en España*. Ministerio de Medio Ambiente. Madril. 54 or. + eranskinak.
- Garin, I., Aihartza, J., Goiti, U. & Salsamendi, E. 2006. *Localización de colonias de cría del murciélago de Bechstein en Álava*. EHUren Zoologia eta Animalia Zelulen Biologia Saila. 7 or.
- Garin, I.; Aihartza, J.; Goiti, U. & Salsamendi, E. 2007. Surveying for the rare Bechstein's bat (*Myotis bechsteinii*) in northern Iberian peninsula by means of an acoustic lure. *Hystrix - Italian Journal of Mammalogy*, 18(2): 215-223 or.
- Gosá, A., Crespo, A. & Tamayo, I. 2007. *Áreas importantes para los anfibios y reptiles en el País Vasco*. Aranzadi zientzi elkarte. 49 or.
- IKT S.A. 2005. *Red de corredores ecológicos de la Comunidad Autónoma de Euskadi*. Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila, Eusko Jaurlaritza. 145 or. + planoak.

- IKT S.A. 2007. *Propuestas para la revisión del Catálogo vasco de especies amenazadas en relación con taxones de vertebrados sometidos a programas de vigilancia en la CAPV durante 2004-2006*. Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila, Eusko Jaurlaritza. 35 or.
- Illana, A. & Paniagua, D. 2002. *Atlas de distribución de carnívoros en el territorio histórico de Álava. I. Liburukia, Memoria*. Nekazaritza eta Arrantza Saila. Eusko Jaurlaritza. 248 or. + eranskinak.
- Loidi, J. (koord.). 2009. *La vegetación de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Leyenda del mapa de series de vegetación a escala 1: 50.000*. Eusko Jaurlaritza. 197 or.
- Madroño, A. González, C. & Atienza, J.C (Ed.) 2004. *Libro Rojo de las aves de España*. Dirección General para la Biodiversidad-SEO/BirdLife. Madril. 435 or. + eranskinak.
- Maldonado, C., Martínez de Arano, I. & Latorre, I. 2006. *Integridad ecológica, diversidad estructural y patrones de regeneración en robledales semi-naturales de la CAPV. Análisis de su contribución a la biodiversidad y de sus necesidades de conservación*. Errotuz. 33 or. + eranskinak.
- Mallarach, J.M., Comas, E., Pérez, J.M., López, C. & Dalmases, M. 2005. *Conectividad ecológica y paisajística del Territorio Histórico de Álava. Delimitación de espacios y elaboración de una estrategia de conservación y restauración*. Ingurumen eta Biodibertsitate Zerbitzua, Arabako Foru Aldundia. 51 or. + planoak.
- Ondotek. 2008. *Unidad hidrológica del Baía. Non: Red de seguimiento del estado ecológico de los ríos de la Comunidad Autónoma del País Vasco*. URA. Bilbo. 603-623 or.
- Paisaia, Gestión y Ordenación del Paisaje. 2010. *Agenda Local 21. Diagnóstico. Urkabustaiz (behin betiko bertsioa)*. Urkabustaizko Udala. 146 or.
- Paisaia, Gestión y Ordenación del Paisaje. 2010. *Agenda Local 21. Diagnóstico. Zuia (behin betiko bertsioa)*. Zuiako Udala. 129 or.
- Palomo L. J. & J. Gisbert (koord). 2002. *Atlas y Libro Rojo de los Mamíferos terrestres de España*. Dirección General de Conservación de la Naturaleza – SECEM-SECEMU. Madril. 579 or.
- Rosell, C., Planas, V. & Navàs, F. 2003. Location of fauna passages. How to find the optimal location? *Proceedings Habitat Fragmentation due to transport infrastructures*. 2003ko azaroaren 13-15, Brusela (Belgika).
- Sarasola, V.; Madeira, M.J.; Gómez, B. & Gosá, A. 2009. *Segunda parte del estudio de la variabilidad genética de Rana dalmatina: claves para la conservación de la especie en el País Vasco*. Aranzadi. Herpetologia Behategia. 16 or.
- Tejado Lanseros, C. & Potes Gordo, M.E. 2007. *Áreas reproductivas para los anfibios en Amurrio, Ayala (Álava), Orduña (Bizkaia)*. Dokumentu argitaratu gabea. 59 or.
- Tejado, C. & Potes, M.E. 2008. Ampliación del conocimiento distributivo de la herpetofauna en el territorio histórico de Álava y Condado de Treviño (Burgos). *Boletín de la Asociación Herpetológica Española*, 19: 67-71 or.
- URA. 2001. *Red de vigilancia de la calidad de las aguas y del estado ambiental de los ríos. Unidad Hidrográfica del Baía*. Dokumentu argitaratu gabea. 10 or.
- Ugarte, I. Pagola, S. & Zabalegui, I. 2002. *Estado actual (distribución, biología y conservación) en la Comunidad Autónoma del País Vasco de cuatro coleópteros (Insecta: Coleoptera) incluidos en la Directiva de Hábitats (92/43/CEE) de la Comunidad Económica Europea*. Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila. 198 or.
- Hainbat egile. 2003. *Atlas y Manual de Interpretación de los Hábitat Españoles*. Dirección General de Medio Natural y Política Forestal. Ministerio de Medio Ambiente y Medio Rural y Marino. Madril.
- Hainbat egile. 2009. *Bases ecológicas preliminares para la conservación de los tipos de hábitat de interés comunitario en España*. Ministerio de Medio Ambiente, y Medio Rural y Marino. Madril.

Zuiderwijk, A. & Veenstra, G. 1984. Observations on the occurrence of *Rana dalmatina* Bonaparte, 1840 in Basque Provinces (Amphibia, Ranidae). *Munibe*, 36: 139-140 or.

WEB orriak:

URA, Uraren Euskal Agentzia: <http://www.uragentzia.euskadi.net>

Euskal administrazioen ataria: <http://www.euskadi.net>

Eusko Jaurlaritza: <http://www.ejgv.euskadi.net>

Arabako Foru Aldundia: <http://www.alava.net>

Ingurumen eta Landa eta Itsas Ingurune Ministerioa: <http://www.mma.es>

The UICN Red List of Threatened Species: <http://www.iucnredlist.org>

Zuiako Udala: <http://www.zuia.com>

Urkabustaizko Udala: <http://www.urbustaiz.eu>

Zuiako Kuadrilla: <http://www.cuadrillazuia.com>

IHOBE: www.ihobe.net

“Andrés de Urdaneta” Euskal Geografi Elkargoa: <http://www.ingeba.org>

NEKANET, nekazaritza eta elikadura sektorearekin eta euskal landa-espazioarekin eta arrantzarekin lotzen diren gaiei buruzko ataria: <http://www.nekanet.net>

Arabako ehiza-barrutien elkarte: <http://www.accazalava.es>

13. JARRAIPEN ADIERAZLEAK

HELBURU OROKORRA	BERARIAZKO HELBURUA	ADIERAZLEA	HASIERAKO BALIOA	ERREFERENTZIAKO BALIOA
Basoen gaur egungo azalerari eustea eta baso-kudeaketa egokia ezartzea, hau da, basoaren aldeko kontserbazio-egoerari dagokion naturaltasun-maila eta egitura-komplexutasuneko maila lortzearekin bateragarria izango dena	Bertako basoak kontserbatzea, haien naturaltasuna eta egitura-komplexutasuna hobetuta	Naturaltasun-indizea	Ezezaguna	Hobekuntza adierazgarria
Baso-igel jauzkariak (<i>Rana dalmatina</i>) KBEaren barruan duen kontserbazio-egoera ezartzea, espeziea babesteko eta umatzeko mikrohabitata edo elementuak egon daitezen sustatzea, eta populazioen arteko konexioa bultzatzea	Baso-igel jauzkariak (<i>Rana dalmatina</i>) KBEan duen banaketa behar beste ezagutzea, eta mikrohabitaten agerpena eta populazioen arteko konexioa sustatzea	Mikrohabitaten banaketa eta erabilgarritasuna, eta baso-igel jauzkariaren populazioen arteko konektagarritasuna	Ez dago	Datuak eskura izatea
Bechstein saguzarraren (<i>Myotis bechsteinii</i>), kontserbazio-egoera ezartzea, populazioak egonkor mantentzea eta berariazko habitata egon daitezen sustatzea	Bechstein saguzarraren (<i>Myotis bechsteinii</i>) banaketa, ugaritasuna eta eskakizunak behar beste ezagutzea	Bechstein saguzarraren banaketa, ugaritasuna eta eskakizunak	Ez dago	Datuak eskura izatea
KBEaren hiru sektoreen arteko konektagarritasuna ziurtatzea	“Urkabustaizko irla-hariztiak” KBEaren konektagarritasuna hobetzea	Konektagarritasuna hobetzeko leheneratutako azalera	0	EAEko Korridore Ekologikoen Sarean definitutako korridoreen mugaketa eta ezaugarritze xehatuko azterketan definitua

HELBURU OROKORRA	BERARIAZKO HELBURUA	ADIERAZLEA	HASIERAKO BALIOA	ERREFERENTZIAKO BALIOA
Behar besteko doitasunez ezagutzea Urkabustaizko irla-hariztietako biodibertsitatearen kontserbazio-egoera eta erreferentziako aldeko kontserbazio-egoera, eta horren galera edo narriadura eragin dezaketen kausak zehaztea, kontserbazio-egoera epe luzera mantentzeko beharrezko neurriak diseinatzeko eta egokitzeko	Aldian-aldian eguneratua edukitzea kontserbaziorako interesekoak diren habitat guztien kartografia, baita dibertsitate biologikorako eta integritate ekologikorako garrantzizkoak diren enklabe edo elementu naturalen edo kulturalen kartografia ere	Habitaten kartografia	Habitaten kartografia, 2010ean berrikusia	Habitaten eta enklabeen eta elementuen kartografia eguneratua eta eskuragarria
	Babes bereziko erregimeneko habitaten eta basaespezieen eta funtsezkoak edo kudeaketaren helburu diren elementuen kontserbazio-egoera ezagutzea	Kontserbazio-egoera	% 25 ezezaguna	Ezaguna izatea babes bereziko erregimeneko habitaten eta espezieen eta funtsezkoak edo kudeaketaren helburu diren elementuen % 100erako
	Urkabustaizko irla-hariztietako dibertsitate biologikoaren balio ekonomiko osoa kalkulatzeko, baita bertako espezieek eta ekosistemek eskaintzen dituzten ingurumenaren arloko zerbitzuak eta ondasunak ere	Biodibertsitatearen guztizko balio ekonomikoa	Ezezaguna	Kalkulatua

HELBURU OROKORRA	BERARIAZKO HELBURUA	ADIERAZLEA	HASIERAKO BALIOA	ERREFERENTZIAKO BALIOA
	KBEan eta haren inguruan basafaunaren hilkortasun ez-naturalerako puntu beltzen mapa lantzea	Puntu beltzen mapa	Ez dago	Eskura eta eguneratua izatea
	Akuiferoaren gaineko eraginak ezagutzea eta prebentzio-erregimena eta alerta-sistema abian jartzea	Akuiferoaren gaineko eraginak eta alerta-sistema abian jartzea	Eraginak ezezagunak eta ez dago alerta-sistematik	Eraginak ezagutzea eta alerta-sistema ezarrita izatea
“Urkabustaizko irla-hariztiak” KBEan eragina duten erabakiak hartzeko prozesuetan gizarte-partaidetza sustatzea, baita herritarren inplikazioa eremu horien kontserbazioan	Herritarrei aldi behin informazio ulergarria ematea KBEaren biodibertsitatearen kontserbazio-egoerari buruz, ingurumen laguntzei buruz, egoera kaskarrak eragiten dituzten kausei buruz, arloko politika publikoei buruz eta horien emaitzei buruz	Herritarren ezagutza-maila	Txikia	Handia
	Herritarrak espezieen eta habitaten kontserbaziorako ezagupen-jardueretan inplikatzea eta boluntariora sustatzea	KBEaren kudeaketatik bultzatu diren jarduerak	0	Urteko balio minimoa: 2

HELBURU OROKORRA	BERARIAZKO HELBURUA	ADIERAZLEA	HASIERAKO BALIOA	ERREFERENTZIAKO BALIOA
	Herritarren proaktibitatea sustatzea espezieen eta habitaten kontserbazioan, batik bat finken kudeaketaz arduratzen diren pertsonena	Hobariak eta egindako aintzatespenak	0	Balio minimoa: 2
Aginpidea duten erakunde publiko guztien koordinazioa hobetzea, eta dagoen ingurumeneko eta sektoreko araudi oro egokitzea, dokumentu honekin eta ezartzen diren kontserbazio-neurriekin koherentea izan dadin	Biodibertsitatearen arloan aginpidea duen Eusko Jurlaritzaren Zuzendaritzak eta Arabako Foru Aldundiak "Urkabustaizko irla-hariztiak" KBEan garatzen dituzten jardunak koordinatzeko batzorde tekniko iraunkorra eratzea	Batzorde teknikoaren koordinazio-bileren edo -jardunen kopurua	0	Balio minimoa: 2
	Gaur egun dagoen ingurumeneko eta sektoreko araudia egokitzea, kontserbazio-neurri hauek aplikatu daitezkeen errazteko	Plan sektorial bateragarriak	Ebaluatu gabea	% 100

